

Falta duen txapelaren bila


Laugarrenez, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean lehiatuko da Igor Elortza. 2013ko txapelketan hirugarren geratu ostean, buruz burukoan sartzea eta txapelajantztea helburu lorgarriak direla uste du durangarrak. BECeke oholtza gainera igo aurreko sentsazioez eta ibilbideaz egin digu berba. Horrez gainera, 2017ko Txapelketa Nagusiko beste protagonista batzuekin ere egon da ANBOTO. • 22



Argazkilaria: Leñor Eiorriaga

HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA

DURANGO, 2017



Durangoko euskararen kale erabilera %22,7koa da Soziolinguistika Klusterraren arabera

Durango • Soziolinguistika Klusterrak Durangoko euskararen kale erabilera aztertu du udalaren eskariz. Ikerketa horretako emaitzak eguaztenean aurkeztu zituzten Plateruenean emandako berbaldean. Durangon, euskararen kale erabilera %22,7koa da, eskualdeko batezbestekoa (%19) baino altuagoa. Zonaldeka Alde Zaharra nabarmentzen da euskararen erabilerrari dagokionez (%29,6). Deigarria da umeek euskara gehiago egiten dutela helduekin daudenean beraien artean baino. • 2-4



“Talde osoa saritu izanaren sentsazioa daukat”

Durango • ‘Handia’-n egindako paperagatik aktore berri onenaren atalerako hautagaia da Eneko Sagardoy Goya sarietan. • 5

ILARGI
ARGIGINTZA

Askatasun etorbidea 20 - DURANGO - Tel.: 946 812 492

ERABATEKO LIKIDAZIOA
denda itxiko dugu eta

GAUR IREKIERA BERRIA DURANGON

JAUREGI - GORO, S.L.
Intxaurren kalea, 7
DURANGO



Durangoko euskararen kale erabilera %22,7koa da Soziolinguistika Klusterraren ikerketaren arabera

Ekainean eta uztailean kale erabilera neurtzeko ikerketa egin dute. Datu orokorra uste zutena baino altuagoa dela azaldu dute Durangoko euskara teknikariek



Soziolinguistika Klusterrak Plateruenean egin du ikerketaren aurkezpena.

lera jaitsi egiten da Durangon. “Ez dut daturik, baina bonbardaketa sasoian eta aurretik ere Durangoko leku askotan euskara gutxi egiten zelakoan nago. Bonbardaketako testigantzak entzuten badituzu, ez dira asko euskaraz dihardutenak”, hausnartu du abadiñarrak.

Hemendik aurrera euskararen normalizazioan zelan eragin? Hori xe da euskararen erabilera eragin gura duten instituzio, eragile eta norbanakoen erronka. Ildo horretatik sortu da Euskaraldia ekimena, esaterako. 2016an euskararen eremuan egin den 6. ikerketa soziolinguistikoa aipatu du Ruizek. “Eusko Jaurlaritzak iaz egindako ikerketaren arabera, 16 urtetik gorako gazteen artean euskaraz hitzun asko irabazi ditu 25 urtean. Hala ere, horietatik %60k erraztasun handiagoa dute erdaraz euskaraz baino. Gogoeta egiteko datu esanguratsua dela esango nuke”, dio durangarrak. Gazteak euskarara erakartzeko, euskaltzaletasuna elikatzeke beharra nabarmendu du Atutxak. “Jon Sarasuaren hitzaldi batean irakurri nuen honetaz, eta interesgarria iruditu zitzaidan. Adibide bat. Durangoren kasuan, ikastetxe guztietan bertsozariak eskolak ematen dira. Agian ez da punterengo bertsozari irtengo, baina zaletasuna pizten bazaie euskaltzaletasuna indartzen aurretik dira”. Bestalde, gazteek euskarazko erreferentzien beharra dutela azaldu dute teknikariek. “Gazteek eskola kirolean, telebistan, Interneten euskarazko ereduak izatea garrantzitsua da, baita eskura ditugun baliabideak erabiltzea ere”.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko egoera soziolinguistikoa tenperatura hartu diote. Horretarako, Soziolinguistika Klusterrak, Durangoko Udalaren enkarguz, euskararen kale erabilera neurtu du. Datu hauek izango dira Euskara Kontseilu berriaren abiapuntua. Izan ere, duela hile batzuk, euskalgintzako hainbat eragilek euskara indartzeko udalagaz zuten komunikazioa hobetzeko borondatea agertu zuten. Ildo horretatik, udalak Euskara Kontseilua sortzeko asmoa jarri zuen mahai gainean. Topagune horren jarduna zehazten


duen Euskararen Udal Araudia aho batez onartu zuten azaroko ohiko bilkuran. Beraz, Euskara Kontseilua laster hasiko da formalki lehen pausoak ematen. Udaleko euskara teknikariek ere bat egin dute ekimen horregaz. Juan Antonio Atutxa abadiñarra eta Fernan Ruiz durangarra dira Durangoko Euskara zerbitzuko teknikariak. “Orain arte ez da horrelako ikerketa sakonik egin Durangon, eta hasierako kontseilu horretan ikerketa hori egitea erabaki zen. Egoera erreala zein den ezagutzea eta gerora begira datuak alderatu ahal izatea da

asmoa. Hainbat arlotan eragiteko jarri diren neurriak egokiak izan diren aztertzeko balio dezake. Eus-

“Egoera erreala zein den ezagutzea eta gerora begira datuak alderatu ahal izatea da ikerketaren asmoa”

“Adinean gora joan ahala euskararen erabilera jaitsi egiten da Durangon”

kara Plan berriak ere bide horretatik doaz”, dio Atutxak. Euskararen kale erabilera datu orokorra %22,7koa da Durangon. Teknikariek aitortu dutenez, datu apalagoa espero zuten. “Orain dela 30 urteko datuak bagenitu, alde itzela izango litzateke. Orduko eta oraingo pertzepzioek ez dute zerikusirik. Orduko pertzepzioak eta oraingo datuak alderatzerik ez dago, baina esango nuke orain euskara gehiago entzuten dela”. Adinari dagokionez, beste herri askotan gertatzen den legez, adinean gora joan ahala euskararen erabi-





Asier Basurto Arruti
Soziolinguistika
Klusterreko ikerlaria
Donostia | 1985

“25.000 biztanletik gorako herrietan, Durango da kaleko erabilera %20 baino altuagoa duen bakarra”

Ikerketa egiteaz gainera, Soziolinguistika Klusterrak azterketaren ondorioak aurkeztu ditu

DURANGO • JONE GUENETXEA

Soziolinguista Klusterreko Asier Basurto ikerlaria izan da Durango-ko euskararen kale erabileraren neurketaren arduraduna. Datuak esku artean dituela, ondorioen berri eman du Platerueneko aurkezpean.

Zein metodologiari jarraitu diozue?

Neurtzaile profesionalak ibiltzen dira kalean, herriko bizitza sozialaren adierazgarri diren ordu eta lekuetan, jendeak darabiltzan hizkuntzen inguruko datuak jasotzen. Neurtzaileek ez dute interferentziarik eragiten, alegia, hiztunari ezer galdetu gabe, norbanakoaren subjektibotasuna albo batera utziz, entzun eta elkarrizketaren hizkuntza jasotzen da, solaskideen adin, sexu eta hurren parte-hartzearen informazioagaz batera. Euskal

Herrian bertan sortua da metodologia eta aurreko mendeko 80ko hamarkadatik hona ehunka herritan erabili izan da. Nazioartean ere, badira metodologia hau aplikatzen diharduten ikerlariak.

Zeintzuk dira emaitza orokorrak?

Durango kaleetan entzun ditugun elkarrizketetan parte hartzen ari ziren pertsonen %22,7 euskaraz ari zen; %75,4 gaztelaniaz eta %1,9 beste hizkuntza batean. Kalean euskara gehien erabiltzen dutenak

“**Belaunaldi gazteenak euskara gehien erabiltzen dutenak izatea positiboki baloratzen da**”

haurrak dira (%37,8); ondoren, gazteak (%25,2), jarraian, helduak (18,8) eta, azkenik, euskara gutxien darabiltzen adinekoak dira (%14,5). Belaunaldi gazteenak euskara gehien erabiltzen dutenak izatea positiboki baloratzen da. Bestalde, belaunaldi bakoitzean euskarazko gaitasuna duten pertsonen proportzioa zenbatekoa den ere kontuan hartu behar da; gazteagoen artean gehiago dira euskaldunak. Bestalde, emakume eta gizonezkoen hizkuntza-erabilera nahiko antzekoa da, nahiz eta emakumeena zertxobait altuagoa izan. Euskal Herrian ohikoa den joera izaten da. Zonaldeka Alde Zaharra nabarmentzen da euskararen erabilerari dagokionez (%29,6). Ezkurdi-Madalenan eta Ibaizabal-Landakon dezente baxuagoa da euskararen erabilera (%17,8 eta %14,1, hurrenez hurren).

Haur eta nagusiak beraien artean eta taldean nahastuta ere aztertu dituzue. Umeek beraien artean nagusirik barik egiten duten euskara kopurua (haurrak hurrekin %18) datu orokorraren (%22) azpitik dago. Zein irakurketa egiten duzue?

Haurrek euren artean euskara gutxiago darabilte helduekin dardenean baino, bai. Herri askotako emaitzetan agertzen da hori. Kontuan izan behar da, gainera, haurren arteko elkarrizketetan hiztunak euskaldunak izateko aukera handiagoa dela. Sakon aztertu beharreko fenomeno da, zalantzarik gabe, baina esan daiteke haur askok txiki-txikitatik barneratzen dutela euskara haur-guraso edo haur-nagusi harremanetako hizkuntza moduan, baina gaztelania berdinen arteko harremanetarako hizkuntza moduan. Hizkuntzen erabilerarako irizpide hori heldu asko eta askoren artean guztiz barneratuta dagoela ere jakina da; eta hor bilatu behar zaio, nire iritziz, jatorria.

Durangoen antzeko ezaugarriak dituen herriren bategaz alderatu daitezke datuak?

“**Eskualde-buru bezala, eskualdearen isla nahiko fidela da Durangon gertatzen dena**”

Normalean, beti egiten ditugu alde-raketa horiek ikerketen aurkezpean, interpretaziorako erreferentzia batzuk ematearren. Kasu honetan, adibidez, Zornotzagaz alderatu dugu, gertutasunagatik, nahiz eta herri txikiagoa izan eta daukagun daturik eguneratuena 2013ko kale neurketakoa izan. Bertan euskaldunen proportzioa %52koa da, eta erabilera, %23koa.

Durungaldeko beste herri batzuetan ere egin dituzue kale neurketak. Alde handia dago batetik bestera?

Durango datuak eskualde osoko datuen antzekoak dira. Durangaldean badaude Durango baino euskaldun proportzio altuagoa eta baxuagoa duten herriak eta badaude kalean euskara gehiago eta gutxiago entzuten diren herriak. Esan daiteke eskualde-buru gisa, eskualdearen isla nahiko fidela dela Durangon gertatzen dena.

Euskal Herrian, orokorrean, Durango bezalako joerak ikusten dira?

Orokorrean, bai; Durango eza-gutza eta erabilera datuen arteko harremana, adin-taldeen arabera-ko erabilera, sexuen arteko konparaketa edo haurren presentziaren eragina Euskal Herrian ikus daitezkeen joerak dira. Hala ere, badago nabarmentzeko zerbait: biztanle kopurua. Ez dago beste herri bat Euskal Herri osoan Durangoren kale erabilera duena, 28.000 biztanle baino gehiago edukita. Beste hitz batzuetan esanda: 25.000 biztanle baino gehiagoko herrietan Durango da bakarra euskararen kaleko erabilera %20 baino altuagoa duena.

Lehenengoz egin da erabileraren kale neurketa. Mota honetako ikerketek zein balio dute?

Aipatutako ildotik, uste dut Durangok baduela erreferentzialtasun bat eskualdean, Bizkaian eta Euskal Herrian. Datu hauei erreparatuta, baikor izateko seinaleak badaude; baina horiek jende askoren lanaren eta asmatu duten hainbat ekimenen emaitzak dira, ziurrenik. Horregatik, bertan goxo egon gabe, hutsuneak identifikatu, hauek ondo ezagutu eta euskararen erabilera areagotzeko ekimenak etengabe birpentsatu eta bultzatu behar dira. Ikerketek funtsezko papera jokatzen dute zeregin horretan. Kale neurketak kalearen argazkia ematen digu: herritar ororena den espazioarena, ekitaldi eta gertaera publiko nagusien eszenatokiarena. Herriaren diagnosi orokorra egiteko funtsezko tresna da. Baina, era berean, Durangon aurrerantzean jorratu beharreko lan-ildoak durangarrek erabaki behar dituzte. Ikerlarien lana eta ikerketetatik lortutako ezagutza baliatuz, baina tokiko errealitatean murgilduta egoteak ematen duenetik abiatuta lan egin behar dute bertako euskalgintzak, administrazioak eta herritarrek.

Hurbiletik

Hainbat lagun batu ziren eguaztenean Soziolinguistika Klusterrak Plateruenean egin zuen aurkezpenean. Datuak ezagututa, euskalgintzan diharduten entzule batzuen iritzia eskatu du ANBOTOK.

“Sarritan ez gara konturatzen geu garela umeen ispilua”

Platerueneko ekitaldian aurkeztutako zein datuak deitu dizu atentzia?

Umeek euren artean zer gutxi egiten duten euskaraz egin zait deigarri. Nagusia jakin dut; umeen aurrean, bai, baina euren artean, ez. Baina umeena... Badirudi nagusiok umeen beharra dugula euskaraz berba egiteko, eta umeek nagusia. Sarritan ez gara konturatzen geu garela umeen ispilua. Bestalde, zonalde batetik bestera dagoen aldeak ere atentzia deitu dit, ez nuen espero. Alde Zaharretik beste eremuetara 10 puntutik gorako aldea dago. **%22,7koa da euskararen kale erabilera orokorra herrian. Zer iruditzen zaizu?**

Datua ikusi, eta hasieran harrituta geratzen zara; hotzean ikusita, tristea da. Baina datu guztiak ikusita, eta antzeko tainako herriekin alderatuta hobeak direla ikusita, bada, ez dakit... Konparaketak higuin-garriak omen dira, baina horregaz funtzionatzen dugu. Durangon aurreko daturik ez dugunez, interesgarria litzateke hemendik bost edo hamar urtera jarraipena egitea, eboluziorik badagoen ikusteko.

“**Interesgarria litzateke bost edo hamar urtera jarraipena egitea, eboluziorik badagoen ikusteko**”



ZIORTZA ALDEKOA-OTALORA

AEK-ko irakaslea

Zertan hobetu daiteke, zure ustez, Durangon euskararen erabilera handitzeko?

Ikasketa maila edo tituluak lortzera bideratuta daude gaur egungo laguntzak. Gainera, ikasleen kezka nagusia ere mailak lortzea da, hori baita eskatzen zaiena. Horregatik, euskararen erabilera ere sustatu eta lagundu beharko litzatekeela uste dut.

“Gaur egun umeek bizi duten mundua beste kale bat da”

Datuokin, zein inpresio duzu?

Pobreari gertatzen zaion moduan, gutxigaz konformatu behar. Beste herri batzuekin alderatuz ondo gaude, baina %22,7 oso gutxi da.

Zerk deitu dizu atentzia?

Arduratzen nauen datu bat badago. Kale erabilera da neurritu dena, eta gazte kopuru txikia agertzen da. Gazteak ez dabilza kalean. Uste dut gazteen kalea, gaur egun, ez dagoela gure esku. Badira sareak eta beste gauza batzuk, eta horretan euskararen erabilera txikia da. Esparru hori ere aztertu beharko litzateke.

Haurrek euren artean helduekin daudenean baino gutxiago erabil-



MOISÉS URIEN ARRIZABALAGA

Jesuitetako irakaslea

tzen dute euskara. Zein irakurketa egiten duzu?

Gazteekin gertatzen den moduan, umeek bizi duten mundua beste kale bat da, ez da herriko plaza. Horri ere ekin beharko diogu. Hala ere, itxaropentsua da umeek euskara gehiago erabiltzea, baina beldur naiz nagusien mundura heltzen direnean, helduak direnean ez ote duten gaur egungo joera errepikatuko, edo ez ote duten okerrera egingo.

“Umeekin erreferentziak landu beharko lirateke”

Datuak ezagututa, zein sentsazio duzu?

Espero nituen datuak dira. Orokorrean, gaitasuna %50 ingurukoa dela jakinda, horrelako zozter aurreikusten nuen, desioko nukeena ez den arren. **Zerk harritu zaitu?** Hasteko, Durangaldeko euskararen erabileraren datuak harritu nau, %19. Durangoko erabilera altuagoa izateak harritu egin nau (%22,7). Durangaldea Durango baino euskaldunagoa dela pentsatu izan dut beti. Izan daiteke, kale erabilera aztertuta beste herrietako jendea Durangora etortzeak eragina izatea. Alde Zaharrean ikusten da



KOLDO ZARATE ONAINDIA

Euskal Herrian Euskaraz

erabilera handiena, komertzio gehien dagoen lekuan.

Umeen erabilera da altuena.

Erabilera handiena duen taldea den arren, belaunaldi berriak euskalduntzeko hartu diren neurriekin oraindik ere umeek hainbeste erdara egiteak arduratu egiten nau. Bestalde, erreferentziak ere landu beharko lirateke. Gurasoek beraien artean erdaraz egiten badute, umeek beraien lagunekin daudenean eredu hori errepikatu egiten dute.

“Alde Zaharreko estimuluak beste eremuetan erabili ahal dira”

Soziolinguistika Klusterrak Plateruenean eginiko aurkezpenean egon zara. Bertan emandako datuen artean, zein nabarmenduko zenuke?

Batez ere, Alde Zaharreko erabilera harrirituta geratu naiz, eta uste dut aztertzea eta ona izan ahal dela jakitea zergatik egiten den gehiago Ezkurdi edo Madalenagaz alderatuta. Hango estimuluak beste eremuetan erabili ahal dira. Komertzioak, herri sentimendu gehiago... ez dakit zergatik izango den. Bestalde, umeen eta gazteen arteko erabilera datuetan ez dago alderik. Kontuan hartzeko datuak dira.

Zer sentsazio izan duzu euskararen kaleko erabilera datu oroko-

rra ezagutzean? Ona ala txarra iruditu zaizu?

Hasieran datua entzutean oso gutxi iruditu zait, gero pozgarria izan ahal dela ere ikusi arren. Testuingurua garrantzitsua da. Baina zelan den kontua, txarra ere ondo ikustera heldu ahal gara.

Eta zer egin genezake egoera hobetzeko?

Aspaldi konturatu gara eza-gutzan asmatu dugula, ondo

“**Aspaldi konturatu gara ezagutzan asmatu dugula, baina beste arlo batzuetan eragin beharko genukeela**”



MAITE EUBA AREITIOAURTENA

Udal Euskaltegiko irakaslea

erakutsi dugula, baina beste arlo batzuetan eragin beharko genukeela. Ezagutza badago, hori ez da kezkatzekoa, erabilera bai ostera. Eskolak ez diren beste eremu batzuk topatu behar genituzke normalizaziorantz. Gainera, ezagutzea ondo dago, baina gero erabiltzen ez baduzu? Lotuta doazen gauza bi dira. Erabilera bermatu eta lagundu behar da.

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko abenduaren 15a
16. urtea - 702. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Nagore Txintxurreta Isasi eta Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Sagardoy, Landako inguruetan, elkarrizketa baterako ateratako argazkian. LEIOR ELORRIAGA

Eneko Sagardoy, Goya sarietarako hautagaia: "Talde osoa saritu izanaren sentsazioa daukat"

Aktore berri onenaren Goya saria irabazteko hautagai izango da Eneko Sagardoy aktore durangarra, 'Handia' filmean egindako protagonista lanagatik; 13 izendapen ditu filmak

DURANGO • J.G / A.M. / M.O.

"Taldea osoa saritu izanaren sentsazioa daukat. Talde osoak jasotako errekonozimendua da", adierazi zion Eneko Sagardoyk ANBOTOri eguaztenean, Goya sarietan aktore berri onenaren atalean hautagai izango dela jakin eta minutu gutxira. *Handia* filmak hamahiru hautagaitza jaso ditu, eta, horregatik, zuzendariak eurek ere esan dute talde osoaren lana baloratu dela. Ezin ukatu, ordea, izendapen oso garrantzitsua dela 23 urte baino ez dituen aktore durangarrarentzat. Bere ibilbidea etengabe hazten ari da, antzeztu duen Altzoko handiaren hezurren antzera.

Emozioz beteta

Aktore berri onenaren sarirako izendapena emozioz hartu du Sagardoyk. "Inoiz ez dakigu zer gertatuko den. Hala ere, izendapen hau Joseba Usabiagaren izendapen moduan ere sentitzen dut", dio

fikzioan anaia izan zuenari buruz. Filmak jasotako izendapenek faborito titulua ekarri dezakete. "Faborito izatea errekonozimendua da, presioa ere eragiten duen arren", aitortu du.

Otsailaren 3an, Madril

Aitor Arregiren eta Jon Garañoren filma 2018ko Goya sarietarako izendapenik gehien jaso dituen pelikula da. Ia kategoria nagusi guztietan ditu irabazteko aukerak;

"Izendapen hau Joseba Usabiagaren izendapen moduan ere sentitzen dut", dio fikzioan anaia izan zuenari buruz

tartean, film onenaren, zuzendari onenaren eta gidoi onenaren atalean ere bai. Sariak emateko gala otsailaren 3an izango da, Madril. Orduan jakingo da Durangora Goya bat datorren ala ez.

Zinearen magia

Pelikula Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean estreinatu zenean aparteko ikusmina sortu zen. *Loreak* filmaren sortzaileak zeuden ideien atzean, eta Eneko Sagardoyk protagonistaren papera zelari gorpuztuko ote zuen jakin-mina zegoen. Zein magia erabiliko ote zuten Sagardoy erraldoi bihurtzeko? Zerbait berezia zetorren sentsazioa zabaldu zen, eta egiaztatu egin zen filma pantailara atera eta gero. Zine aretoak beteta, euskarazko pelikularik ikusiena da. Eta akademiatik ere errekonozimendua heldu zaio orain.

Hazten segitzen dute filmak eta Sagardoyk, eta ez daitezela geratu.

"Elorrio oso euskalduna da eta euskaraz hitz egitea ezinbestekoa da"

'Mundutik Elorrion, Elorriotik Mundura' dokumentala aurkeztuko dute Arriolan, gaur, 18:30ean



Samira Benayad berebera (Maroko).

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken hilabete hauetan aniztasun kulturalaren alde lanean dabilta Elorrion, eta 'Mundutik Elorrion, Elorriotik Mundura' jaialdia antolatu dute gaurko. Arriolan, 18:30ean, eskainiko duten dokumentalean agertzen denetarikoa bat da Samira Benayad berebera (Maroko).

Zortzi atzeritarren bizipenak baten dituen dokumentalean parte hartu duzu. Zer iruditu zaizu ekimena?

Elorrioko Udalak eman berri duen pauso hau interesgarria bezain beharrezkoa iruditzen zait. Elorri gauden zenbait atzeritarregaz herriko kultur aniztasunaren inguruko diagnostikoa lantzen ibili dira, eta, gainera, dokumental baten bidez hitza eman digute. Hau atzeritarren integrazioarako ezinbestekoa dela iruditzen zait.

Zuri nolakoa egin zaizu integrazioa? 2009an etorri nintzen Elorrion, eta hasieratik oso argi nuen euskaraz ikasi behar nuela bertakotzeko.

Orduan, bi urtez, Euskaltegian aritu nintzen, eta euskaraz hitz egitea oso zaila egiten zaidan arren, euskaraz hitz egiten dutenean gauza asko ulertzeko gai naizela esan dezaket.

Euskaraz jakitea beharrezkoa dela iruditzen zaizu?

Elorrio herri oso euskalduna da eta, noski, euskaraz jakitea ezinbestekoa dela deritzot. Gainera, euskara bultzatzeko egiten den lana behar-beharrezkoa iruditzen zait, azken batean, hau baita bertako hizkuntza, eta erabiltzen ez bada galdu egingo da. Hala ere, atzeritarrei, euskaraz ez dakiten herritarrei, gazteei, euskaraz ikasteko baliabide gehiago eman behar zaizkiela uste dut.

Nolako harremana duzue atzeritarrok elorriarrek?

Oro har, bizikidetzat ona da. Baina, gaurko jaialdi honek elorriarrei atzeritarrok hobeto ezagutzen lagunduko dielakoan nago. Eta alderantziz ere bai, jakina, baita guri ere haiek hobeto ezagutzeko.



TABIRA

Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria

Intxaurren, 27 DURANGO
944 668 852 / 690 622 499



Hartu atsedenditxo bat

www.cuidamosdetusmayores.com

- Zaintza eta zerbitzua adindunei
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak
- Terapia okupazionala
- Aldi baterako egonaldiak
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta
- Zaintzailearen atsedena
- Lan talde bikaina

Txintxirri ikastolaren 50. urteurrena jaialdi erraldoi bategaz ospatuko dute, maiatzean

Eguaztenean egin zuten 50. urteurreneko egitarauaren aurkezpena Elorrion. Urtarriletik maiatzera bitartean hainbat ekintza izango dituzte mende erdi betetzen duen ikastolan



Eguaztenean egin zuten aurkezpen ekitaldia Txintxirrin.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

1968ko urtarrilaren 12an ireki zituen atea Elorrioko Txintxirri ikastolak, eta orduz geroztik hainbat ikasle eta irakasle igaro dira bertatik.

Eguaztenean, ikastolaren 50. urteurreneko egitaraua aurkeztu zuten bost ikasle ohik, 60ko hamarkadatik hasita hamarkada bakoitzean jaiotako banak. Bertaratutakoei beraien gomutak plazaratu zizkien

boskote aurkezleak. Esaterako, 1968an, ikastolak atea ireki zutenean, eskola batetik bestera ibili zirela gogoratu zuten eguazteneko aurkezpenean. Eta Josune Munitxa eskolaren sortzaile eta bertako irakasle ohiak egindako lana goraiatu zuten. “Josunek egindako lan eskergari esker da Ikastola orain dena”, adierazi zuten.

1972an Marianisten egoitza izandako Txintxirri jauregia ikas-

tolak eskuratu zuenetik, eraikin horretan hainbat oroitzen on bizi izan dituztela esan zuen boskoteak. Eta ikastolaren ibilbide guztian lan asko egin dela, eta oraindik lan asko egiteko dagoela nabarmendu zuten.

Egitarau zabala

Bestalde, eguaztenean, urtarriletik maiatzera antolatu duten egitaraua aurkeztu zuten. Urtarrilaren 11ra-

ko, omenaldi ekitaldia antolatu dute, Arriolan. Otsailean, argazki erakusketa eta bisita gidatuak egingo dituzte. “Ikastolako oroitzenak gogora ekartzeko aukera paregabea eskainiko du”, adierazi du David Cobos ikastolako zuzendariak.

Martxoaren 9an bertso afaria egingo dute. “Bertso afari honetara Euskal Herriko txapelak eta puntako beste bertsolari bat ekartzeara da gure asmoa”, jarraitu du Cobosek.

Martxoaren 18an, berriz, mendi irteera egingo dute eta, apirilean, musika eskolakoek prestatzen dabilen abestia aurkeztuko dute.

Jaialdi erraldoia, berriz, maiatzean egingo dute. Cobosek jakitera eman duenez, umeen ikuskizuna, bazkari herrikoa eta erromeria egongo dira, besteak beste. “Hemendik eta maiatzera, gauza asko dago egiteko, baina, lana eginda jaialdi polit bat antolatuko dugula koan nago”, bukatu du Cobosek.

Dokumentu historikoak

Horrez gain, Ikastolak dituen zenbait dokumentu historikogaz webgune berezi bat sortuko dute Elorrion. Webgune horretan, argazki eta dokumentu zaharrak, eskolaren sortzaileei egindako elkarrizketak... argitaratuko dituzte. Txintxirriko zuzendaritzakoek jakitera eman dutenez, webgune berri hau jaialdian estreinatuko dute.

Beñat Iguaranek irabazi du aurten Mallabiko bertsolari txapelketa

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Bertsolari Gazteen III. Txapelketa Beñat Iguaran gipuzkoarrak irabazi du. Jon Gurrutxaga, Txaber Altube, Unai Mendizabal eta laurak heldu ziren finalera, sailkapen faseak jokatu ostean.

Mallabiko Herriko tabernako soziedadean egindako bertso afarian erabaki zuten irabazlea. Iguaranek batu zituen puntu gehien. Bere ostean, Gurrutxaga, Altube eta Mendizabal geratu ziren, ordena horretan. Mendizabalek, aurreko aldi bietako irabazleak, ezin izan zuten aurreko urteetako lorpena berdindu. Bertso afarian soziedadea bete egin zela esan dute antolatzaileek.

Txapelketa berezia da irabazlea bertso afarira batutako herritarrek erabaki zutelako; ikus-entzuleak izan ziren epamahaia. Hautagaien jarduna entzunda, euren puntuaketa orri batean apuntatu zituzten eta punturik gehien batu zituena izendatu zuten txapelkun.

Mugikorraren bidez udaleko kontuen berri jakiteko aplikazioa aurkeztuko dute

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Udalak Mañaria Zabaltzen izeneko plataforma estreinatuko du interneten: zabaltzen.mañaria.eus. Izen bera duen aplikazioa ere deskargatu daiteke Android eta Iphone mugikorretarako. Herritarrek informatzea zein herritarrek udalera informazioa helarazteko bideak erraztea da helburua. Gaur, 18:30ean, aurkeztuko dute udaletxeko udalbatzar aretoan. Alde batetik, udaleko kontuen gaineko albisteak jaso daitezke. Bestetik, herritarrek eurak udalagaz hartu-emanetan jarri daitezke, kalean matxuraren bat edo konpondu beharreko zerbait ikusten badute. Aplikazioaren bidez eginez gero, APP berriak intzidentziaren gunea zehazten duen geolokalizazioa du. Testu labur bat eta argazkia bidaltzeko aukera ere eskaintzen du.

Gaurko batzarrean aurrekontu parte-hartzailearen eta Tokiko Agendaren inguruko azalpenak ere emango dituzte.

Toloto erreka berbideratzeko lanak eta errugbi-zelaia atontzekoak izango dira 2018ko inbertsio nagusiak

8.750.971 euroko aurrekontua onartu du Elorrioko Udalak datorren urterako, iaz baino 1.379.996 euro gehiago

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Datorren urterako 8.750.971 euroko aurrekontua onartu du Elorrioko Udalak; 2017ko aurrekontuak baino 1.379.996 euro gehiago. Martitzen izandako osoko bilkuran EH Bilduko gobernu taldearen eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin onartu zituzten aurrekontuak. EAJ-k, berriz, aurrekontuen kontra bozkatu zuen. Joseba Mujika EAJren bozeramailak, beraien ustez “2018ko aurrekontu hauek ez direla sozialak” kritikatu zuen.

Egun herri azpitik pasatzen den Toloto erreka berbideratzeko lanak izango dira 2018ko inbertsio nagusienetarikoa. Elorrioko Udalak 500.000 euro bideratuko ditu lan hauetara. “Lan hauek urak herria ez hartzea eta Ugarteko bideko eta Errebonbilo kaleko lanak egitea

ahalbideratuko dute”, adierazi du Xabier Dominguez zinegotziak. Horrez gain, Toloto erreka berbiderraketari esker, herrigunea oinezkoentzat egokitzea lortuko dute.

Bestalde, errugbi-zelaia atontzeko, 600.000 euro bideratuko dituz-

te. Bertan, harmailak, bost aldagela eta beste hainbeste komun jarriko dituzte. Proiektu horrek etorkizunean errugbi-zelaiko eta herri eskolako irisgarritasuna hobetzea ere helburu duela adierazi zuen Idoia Buruaga alkateak.

Horrez gain, 250.000 euro herri gunean Led argiak jartzeko erabiliko dituzte, 220.000 euro Berrioko ur-hornidura hobetzeko eta 120.000 euro herri erdigunean dagoen Buskantz lursaila aisialdi gune bihurtzeko, besteak beste.



Ugarte inguruan lur azpitik igarotzen da Toloto erreka.

Pediatrak ordezkatzeko zailtasunak direla eta, Iurretako eta Zaldibarko osasun etxeetako erabiltzaileak kexu dira

IURRETA • JONE GUENETXEA

Iurretako osasun zentroaren erabiltzaileek pediatria falta dutela salatu ostean, Durangoko eta Iurretako pediatria zerbitzuetako ardura duna den Juan Luis Balentziagak azaldu du pediatrik ordezkatzeko zailtasunak dituztela. Ez dutela ordezkorik aurkitzen. Egoera horren aurrean, Iurretako pediatrik Matienako (Abadiño) eta Durangoko anbulatorioetara joan behar izan du egunotan laguntzera, osasun zentro horietan egon izan den beharizanari erantzuteko. Halaxe

azaldu du pediatria zerbitzuetako arduradun Balentziagak.

Asteon bertan normalizatu da egoera. Hala ere, pediatrik ordezkorik ez dagoenez, egoera "oso larria" dela aitortu du Balentziagak. "Dauden pediatrik oporrak edo bajak hartu behar dituztenean

Iurretako pediatrik Matienako (Abadiño) eta Durangoko anbulatorioetara joan behar izan du azken egunotan laguntzera

egoera errepikatu egin daiteke", dio Durangoko eta Iurretako zerbitzuko arduradunak.

Zaldibarren ere, kexu

Zaldibarren ere pediatrik gabe daudela salatu dute zenbait erabiltzailek, sare sozialen bitartez. Aste honetan, 12:00etatik 14:00etara egongo da errefortzua, zabaldu dutenez, eta egoera horren aurrean kexu agertu dira. Osasun zentroan bertan eskatu daitekeen erreklamazio orria betetzera deitu dituzte familiak



Pediatria falta salatu dute Iurretako osasun zentroko erabiltzaileek.

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAL
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubioure, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO
944 071 791

Garbiketa

AZKARGI GARBIKETAK

Auzo elkarte, garaje eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
Pintura eta pintura apaingarria.
Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Elikadura osasuntsuagoa gura duten herritarrei jantokia ireki die Otxandioko adinekoen egoitzak

Udatik martxan dagoen ekimena da, baina askok ez dute ezagutzen; gaia gizarteratzeko eta herritarrek informatzeko hitzaldi bi antolatu dituzte datorren asteko martitzenean eta eguaztenean, Otxandioko adinekoen egoitzan bertan

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Arrazoi bategatik edo besteagatik, elikadura orekatua eraman ezin duten hainbat herritar daude Otxandion. Herriko medikuaren bidez detektatu dituzte horietako batzuk. Ildo horretatik, defizit hori dutenei zaharren egoitzako jantokia ireki ahal zitzaizela proposatu zuen egoitzako arduradunak berak. Udalari, gizarte langileari eta herriko medikuari ideia ona iruditu zitzaizen lau aldeek aldiaren behin egiten duten batzarrean eta udatik zerbitzua martxan dago. Prezio merkean elikadura orekatua eramateko aukera eskaintzen dute.

Zerbitzuaren berri emateko, ekimen bi antolatu dituzte datorren astean Otxandioko egoitzan. Martitzenean, 17:30ean, nagusien elikadurari buruz jardungo du Garroa Goñi dietistak. Eguaztenean, 17:30ean, jantokiko zerbitzuari buruzko informazioa emango du Inge Landaluze egoitzako arduradunak.

Zerbitzuagaz hasi aurretik, jubilatuen elkartekoekin batu ziren

ekimenaren berri emateko, adin tarte horretan zerbitzu honen beharra zuten hainbat pertsona aurkitu zitezkeelakoan. Hala ere, “ez da adin tarte batera mugatuko zerbitzua, eta behar duten denentzat dago irekita”, adierazi du Miren Urigoitia udaleko zine-

gotziak. Interesatuak zaharren egoitzara jo dezakete. Pertsona bakoitzaren beharrezanetara moldatu daitezkeen zerbitzua da. Hau da, egunero jan daiteke bertan edo egun konkretu batzuetan bakarrik. Bazkaltzeko, afaltzeko edo bietarako erabili daiteke, beti ere

ordutegi jakin batzuetan. Prezioak herrikoiak dira.

Adinekoen egoitzako 21 plazak beteta daude. Hala ere, jantokian badago tokia, eta eskaria handitzen bada eta beharrezana sortzen bada txandak antolatu daitezkeela azaldu du Urigoitiak.



Otxandioko adinekoen egoitzako arduradunak euren zuten jantokia behar zuten herritarrei irekitzeko proposamena.

Garaiko herrigunetik Oizerako bidean doazen autoen abiadura biziaz

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Autoagaz abiadura handian ibiltzeko asmoz, Oizerantz jotzen dute zenbait lagunak, eta Garaik ere abiadura bizian pasatzen dira. Nahiz eta kexa ofizialik egon ez, gidari horien abiadura herrigunetik igartzen dela azaldu du Gontzal Sarrigoitia alkateak. Herri erditik pasatzen da mendirantz joateko errepidea, Goiurira bidean dagoena.

Joan zen astean auto istripu bat egon zen Oizen, eta istripuan rallyetako kopilotu gazte bat hil eta beragaz zihonan laguna zauritu egin zen. Hala ere, gertakari horrek rallyekin loturarik ez duela uste du Aketza Santacolomak, Durangalde Racingeko kideak. Gainera, kexu azaldu da hainbatek horrela lotu dutelako. Bere esanetan, ezohikoa da Bilbo handitik Oizera autoagaz probak egitera etortzea, eta rally gidariek euren entrenamenduak federazioaren arau eta segurtasunen baitan egiten dituztela nabarmendu du.

Suteko kalteen ondorioz, gazteak beste zentro batzuetan birkokatu dituzte

Martitzenean piztu zen sutea Euban dagoen adin txikikoen lehenengo harrera zentroan

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Adin txikiko etorkinei lehenengo harrera egiteko Zornotzan dagoen zentroan sutea piztu zen martitzen arratsaldean. Kalte dezente eragin zituen eraikinean, eta konpondu bitartean hustu egin dute. Hantzen gazteak Bizkaiko beste zentro batzuetan birkokatu ditu Aldundiak. Zein zentrotara eraman dituzten ez dute jakinarazi.

Ertzaintza sutea zerk eragin duen aztertzen ari da. Aste hone-



Egunotan suteak eragindako kalteak baloratzen aritu dira

takoa ez da zentro horretan sutea izan den lehenengo aldia. Azaroaren 7an ere gazteak zentrotik atera behar izan zuten sute baten ondorioz.

“Saturazioa” salatu dute

LAB sindikatuaren ustez, adin txikikoen zentroak gainezka daude eta “ez da Bizkaiko Aldundiak ezagutzen ez duen zerbitzu”. “Hori al da Bizkaiko Foru Aldundiaren konponbidea, sistema gainsaturatzea? Adin txikiko hauekin eta profesionalekin dituen betebeharrak ez bermatzea?”, galdetu dute heda-bideetara helarazitako ohar batean. “Dauden beharrezanek” kontuan hartuta, Aldundiko zerbitzu sozialen ereduak “finantziario eskasa” duela iruditzen zaie.

Kaleko argiak aldatu dituzte energiaren eraginkortasunerako

IZURTZA • J.D.

Bi-623 errepideak Izurtza zeharkatzen duen bide zatian kaleko argi sistemak aldatu ditu udalak. Errepideko alde batean aldatu dituzte, espaloia dagoen aldean. Argi kontsumo eraginkorragoa bilatzen dute aldaketagaz. Era berean, Bitañoko eta Arbizolea industrialdeko kale argi batzuen argi sistema aldatzeko modua ere izan dute proiektu beraren barruan, udal arduradunek jakitera eman dutenez. Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso dute.

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

A. Urreta
podologa
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO
PLANTILLAK
OINETAKO BESTE
HAINBAT GAITZ

R.P.S. 214/08
Binara
Urreta
Jainaga
MAPFRE IMQ
Herriko gudarien kalea, 10
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Oinezkoen eta eskolako umeen mesedetan, Abeletxe kalea urbanizatuko dute Berrizen

Udalak 2018rako aurrekontua onartu du EAJren aldeko botoekin, eta 150.000 euro herritarrekin landu beharreko aurrekontu parte-hartzailerako dira; EH Bilduk ezezkua eman du eta PSE-EEko zinegotzia ez da osoko bilkurara agertu

BERRIZ • MARKEL ONAINDIA

2018rako udal aurrekontua onartu zuten martitzeneko osoko bilkuran, eta bertako proiektu aipagarrienetako bat Abeletxe kalearen urbanizazioa izango da, 155.000 eurogaz. Trafikorako norabide bakarrek bihurtuko dute, oinezkoen eta eskolako umeen mesedetan. Eskola ondotik pasatzen den Learreta Markina kalea berrantolatzen ari dira oraintxe, eta proiektu horren bigarren zatia da Abeletxekoa. Lehenengotik igo egin ahalko da soilik obra amaitutakoan, eta bigarrenetik bajatu.

Bestetik, aurrekontu parte-hartzaileetarako 150.000 euro gordetzea zehaztu dute, eta gizarte ekin-tzan iaz baino 65.000 euro gehiago ipiniko dituzte, larrialdi laguntzetan, etxez etxeko zerbitzuan eta berdintasunean. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ere martxan ipiniko dute, Orlan Isoird alkateak azaldu zuenez.

EAJren aldeko botoekin onartu zen aurrekontua. EH Bilduk aurka



Abeletxe kalea trafikorako norabide bakarrek bihurtuko da 2018an.

bozkatu zuen, eta PSE-EEko zinegotzia ez zen agertu. EH Bilduren kasuan, kulturaren eta jaietan 12.000 euro gutxiago egotea, "Aldundiko udalkutxarekiko menpekotasuna" edukitzea, eta azpikontratazioen-

gatik "udal autonomia zalantzan jartzea" izan ziren Karmen Amezuak egindako kritika batzuk.

Berriz Susaren zorra

Bestalde, Berriz Susa sozietatean

gertatutako irregulartasunaren ondoriozko 1,8 milioiko isuna ordaintzen jarraitzen du udalak. Zor hori arduradun politikoek ordaindu beharko luketela uste du EH Bildu alderdiak.

Tonbola solidarioan parte hartzeko aukera egongo da Berrizen, asteburuan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte osoan Berrizko hainbat emakumek egindako lanak fruituak eman ditu berriro ere. Berrizko Caritaseko emakumeek 26. Tonbola Solidarioa egingo dute asteburu honetan. Barikutik domekara, goizez (10:00-14:00) zein arratsaldez (16:30-20:00), euro baten truke tonbolan parte hartzeko aukera egongo da.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, ehunka sari banatuko dituen tonbola solidarioan jasotako dirua Mexikon, Venezuelan eta Kongon dauden Berrizko misiolariari, herriko parrokiari eta Berrizko Caritas elkarteari bideratuko diete.

"Oso pozik gaude urte hauetan guztietan berriztarrek eta eskualdeko gainontzeko herritarrek izandako erantzunaz. Eta ziur gaude aurten ere herritarrek erantzun bikaina emango dutela. Beraz, trenbide ondoan dugun lokalera joateko deia egiten diegu guztiei", adierazi dute antolatzaileek.

Besoa galdu du 31 urteko gazte batek Garbi Fundizioan izandako istripuan

Enpresa batzordeak deituta, "Lan istripurik ez, prebentzioa orain" lelopean elkarretaratzea egin dute gaur langileek lan istripua salatzeke; lanuztea ere egin dute.

ABADIÑO • M.O./A.M.

Lan istripu larria egon zen martitzenean Abadiñoko Garbi Fundizioan. Martitzenetik eguaztenerako goizaldean jazo zen ezbeharra, eta, ondorioz, 31 urteko gazte batek besoa galdu du. Enpresa batzordeak deituta, langileek lanuztea eta elkarretaratzea egin dituzte

gaur, 13:30-14:30 bitartean. LAB sindikatuak eta Ernai antolakundeak ere elkartzuna adierazi diote gazteari, eta "gogor" gaitzetsi dute istripua. "Euren betebeharra egingo balute, ziurrenik gaur ez genuke lankide bat larriki zaurituta eta mutilatuta izango", adierazi dute. Sindikatuaren arabera, galdategi-

ko lan eta segurtasun baldintzak "eskasak" dira, eta gogora ekarri dute azken urtean bi sute egon direla. Ernaik, ostera, istripuak langileen "eguneroko ogia" direla esan du, eta batez ere, sektore gazteenek istripuak edukitzeko duten arriskua nabarmendu du. Enpresak ez du adierazpenik egin gura izan.



Muntsaratz auzoan dago Garbi Fundizioa.

Atxondon auzo batzarrak egingo dituzte aurrekontuak herritarrei azaltzeko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Egun gutxi batzuk baino ez dira falta urte berrirako, eta dagoneko Atxondoko Udala 2018ko aurrekontua lantzen dabil. David Cobos alkateak jakitera eman duenez, datorren urteko aurrekontuak urtarrean aurkeztea eta onartzea da beraien asmoa. "Auzo batzarrak egingo ditugu, eta, bertan, udalak zenbat diru duen eta zer egingo duen argituko diegu herritarrei. Eta aukerako diru atalik gertatuz gero, zer egitea gura duten galdetuko diegu", adierazi du Cobosek. Hala ere, oraindik auzo batzarrak noiz eta zenbat egingo dituzten ez dakite.

Inbertsioen garrantzia

Bestalde, Atxondoko alkateak esan du lantzen dabilzan aurrekontuetan inbertsioek diru atal garrantzitsu bat izango dutela. "Datorren urteko aurrekontuetan diru dezente egongo da inbertsioetarako, eta orain horiek lantzen gabiltza", bukatu du David Cobosek.

Euskara zeharlerro eta lan-hizkuntza izateko egindako lana aitortu diote udalari

ZALDIBAR • A.M.

Udalak Erdi Mailako Bikain ziuertagiria jaso du, azken hiru urteetan euskara zeharlerro eta lan-hizkuntza izan dadin egindako aitortza gisa. Arantza Baigorri alkatea pozik agertu da errekonozimenduagaz. "Aurre-rapauso nahikotxo eman dira azken urteetan, guztia gaztelaniaz egitetik, nagusiki euskaraz egitera igaro gara, bai barne mailan bai kanpora begira ere", adierazi du Baigorrik.

Bikain ziuertagiriagaz, Eusko Jaurlaritzak erakundeetan euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio maila egiaztatu eta aitortzen dio. Emaizta positiboa izan arren, aurrera begira arlo batzuk lantzeko beharra azpimarratu du alkateak. "Herritarren harre-ragaz, barne sorkuntzagaz eta langileen arteko elkarrizketagaz hobetu behar dugu", gehitu du. Beraz, egindakoagaz pozik, baina hobetzeko gogoz daude udaleko langile eta zinegotziak.

ANBOTO astekariak jantzi berria dakar gaurtik aurrera, argiagoa, sakonagoa eta interesgarriagoa izan guran

Bada kasik urtebete astekariak gogoetari ekin ziola, eta irakurleen iritzia ere ezagutu du; diseinu berria eraiki, erreportajei garrantzia eman eta hainbat atal sortu ditu



Gaurkoa da diseinu berriagaz argitaratzen den lehenengo alea.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Gure Bizkaia maitea zuriz jantzita dabilen egunotan, ANBOTOk ere jantzi aldaztea erabaki du. Teknologia berriak agertu zirenetik, uneoro eraldatzen ari den arloa da komunikazioarena; herritarrak minutuz minutu informatuta daude sare sozialen eta txaten bidez, eta hedabide inprimatuak irakurtzeko ohiturak aldatu egin dira horren eraginez. Gero eta begirada sakonago eta lasaigoagaz hartzen dituzte, eguneroko zurrumbilotik kanpo. Zelan izan gaurkoa eta interesgarria, hortxe papereko agerkarien erronka. Horrela, euskarazko astekari honek dituen itxura eta edukiak eguneratzeko sasoia heldu da.

Irakurleen sentsazioak

Bada kasik urtebete ANBOTOk

erredakzioak gogoeta horri ekin zionetik, eta bidean ezinbesteko jantzi aldaztearen sentsazioa ere batzea. Horregatik, *focus group* edo iritzi talde bat sortu zuen zenbait irakurleen partaidetzagaz –eskerak bihotzez, zuena ere bada gure jantzi berri hau–. Gaurtik aurrerako

aleak erredakzioaren eta irakurleen ideia mestizajetik jaio dira. Helburu nagusia, astekari argiago, sakonago eta interesgarriago bat bihurtzea izan da.

Nobedadeak

Diseinu erosoago batez, errepor-

taje batek zabalduko du asteroko edizioa, gai zehatzei sakontasunez heltzeko asmoz. Barruan ere, gai batzuei indarra emango zaie logika beragaz. Kultur agendak orri bat irabaziko du, eskualdeko egitarau eta deialdi sortari zabalpena emateko. Kiroletan, nabarmendu egin di-

ren lagunak agertuko dira ‘Asteko kirolaria’ izeneko atalean.

Erreportaje batek zabalduko du asteroko edizioa, gai zehatzei sakontasunez heltzeko asmoz

Kultur agendak orri bat irabaziko du, eskualdeko egitarau eta deialdi sortari zabalpena emateko

‘Harek denporak!’

Beste nobedade esanguratsu bat ‘Harek denporak!’ atala izango da. Atzera begiratu, eta iraganeko argazkiak berreskuratuko ditugu, bere istorio eta azalpenekin lagunduta. Iragana ulertzea eta estimatzea beharrezkoa baita, etorkizunera hobeto begiratzeko.

Irakurleek ere bidali ahal izango dituzte argazkiak, *astekaria@anboto.org* helbidea, 688 63 50 41 whatsapp zenbakia eta sare sozialak erabilita.



Durangoko institutuaren parean elkarretaratzean batu ziren behargin batzuk.

Durangaldeko eskola publiko gehienak zarratuta, bosgarren greba egunean

Martitzeneko protestaren aurretik, beste lau greba egun eduki zituzten azaroan zehar, sektoreka banatuta

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Hezkuntza publikoan greba egun bateratua eduki zuten martitzenean irakasleek, sukaldariek, garbitzaileek, hezitzaileek eta haur eskoletako beharginak. Horregatik, Durangaldeko ikastetxe gehienetan grebak %100eko jarraipena izan duela adierazi dute mobilizatu direnek. Guraso ugarik

ere babesia agertu zieten, Abadiño-koek adibidez, eta euren inplikazioa eskertu dute langileek.

Martitzenekoaren aurretik, lau greba egun izan dituzte azaroan zehar, sektoreka banatuta. Horrez gainera, elkarretaratzeak egin izan dituzte, eta martitzenean ere irudi hori ikusi ahal izan zen, adi-

Irakasleen ratioak %10 murriztea eta ordezkapenak lehen egunetik gauzatzea dira beharginen eskakizunetako batzuk

bidez, Durangoko Fray Juan Zumarraga institutuan.

“Oinarrizko neurriak”

“Egungo hezkuntza publikoaren egoera larria da, eta buelta emateko, oinarri-oinarrizko neurriak eskatzen ditugu”, esplikatu dute beharginak. Adibidez, irakasleen ratioak %10 murriztea eta ordezkapenak lehen egunetik gauzatzea dira eskari batzuk. Gainera, behin-behinekotasuna txikitzea eta hezkuntzako inbertsioa Europakoagaz parekatzea ere gura dute.

Lekuan lekuko egutegia

2018
Hezkuntzaren egutegia

ABADIÑO
ATXONDO
BERRIZ
DURANGO
ELORRIO

Belbe / Hezgarri / Alai/kaberuena
Klasko Alkanditi
Fanditi
Itiz / Liburumendi
Itzaji

GARAI
IURRETA
IZURTZA
MALLABIA

Bestia / Taberna
Itzi
Bestia / Taberna
Bestia / Taberna

OTXANDIO
ZALDIBAR
ZORNOTZA

Elanena / Taberna
Itzaji
Ayazti / paper-ahonda

anboto
komunikabideak



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

2€

Harek denporak!

ANDRA MARIKO AZOKA 20ko HAMARKADAN

1996ko urriaren 11n Eraz aldizkariak Gerediaga Elkartearen argazki hau kaleratu zuen. Iru-dian Andra Mari ingurua ikusten da, azokaren bueltan. Gerediagak dioenez, “ziur ez gauden arren, 1920ko hamarkadan ateratako argazkia da, Primo de Riveraren diktadura sasoiaren. Garai horretan ere, zapatu goizetan azoka atontzen zuten.

Inguruetako herrietatik ortuariak eta produktua ekar-

tzen zituzten gurdietan eta as-toetan. Argazkiko eskumako aldean zorroztailea lanean ikus daiteke. Gerediagak jakin ahal izan duenez, Durangok Erdi Arotik dauka herrian azoka egiteko baimena. Gaur egun, baina, merkatu plazan egiten da zapatuetako ohiko azoka. Erazen ale hau kaleratu zenean, baina, merkatu horretako lehen faseko lanak amaitzeko hilabete falta zen. J.G.

Gerediaga Elkartea



Sei hankako mahaia

Julian Rios
Santiago
SQ-2D



Jendeak arrazoi du

Durangarrek, berriro ere, kalera irten behar izan dute Durangoko aire kalitatearen eta hatsaren inguruko ikerketa zehatz eta fidagarriak eskatzeko. Berriro diogu, beste plataforma batek eskatu du-lako erakundeen inplikazio aktiboa herritarren osasunaren eta ongizatearen mesedetan. Oraingoan hamalau elkarte —azotarrak, talde ekologistak, sindikatuak eta alderdiak— kalera irten dira, herritarren bozgorailu gisa.

Urte hasieratik, Herriaren Eskubideatik usain sarkor eta desatseginak salatu ditugu, PM2.5 partikulatan (txikiak eta arriskutsuenak) ohikoak baino handiagoak dituzten kutsadura indizeak dituztenak. Gainera, 2017an horiei buruzko datuak falta izan ditugu, datuen %42 hain zuzen.

Askotan, herritarrak ezjakintzat hartzen dituzte, batez ere ingurumenarekin zerikusia duten gaietan, baina, oraingoan, zientzialarien ikerketen arabera, durangarrek arrazoi izan dute. Poluzioa kaltegarria da osasunerako, eta zeresan handiena ematen duten hiriak hasi dira neurriak hartzen arazo honi irtenbidea emateko (Durangon, ez). Bitartean, aire-pollutzaileak jendea kutsatzen jarraitzen du.

Bartzelonako Vall d'Hebroneko ospital batean egindako ikerketa batek dio poluzio handieneko egunetan miokardio-infartuek gora egiten dutela ST segmentua igota, hau da, bihotzeko larriek. Bihotz arazoak areagotu egiten dira, gerora arritmiak egoten direlako, eta heriotza-tasak ere gora egiten du. Entzungo ote digute oraingoan?

*Erredakzioan itzulua

Durangaldea asteen

Durangoko Udalak jostailu bilketa egingo du JAEDegaz eta Caritasegaz batera

Durango | Durangoko Udalak, Caritasegaz eta Jaedegaz elkar-lanean, jostailu bilketa egingo du abenduan. Jostailuak Landako kiroldegiko sotoetan jasoko dira, abenduaren 22ra arte, lanegunetan, 16:00etatik 21:00etara.

Gainera, Gabonetan opariak egiteko aholkua eman du udalak, sexismoa saihesteko. “Publizitate industriak ez dezala umeen irudimena klixe eta estereotipo zaharkituetara murriztu”.

Karroza Egune antolatu dute Luis Urrengoetxea kaleko tabernariak

Zornotza | 70eko eta 80ko hamarkadetako musika protagonista izango da bihar Zornotzan. Aspaldiko “karrozei” eskainitako gaua izango da, beraz. Prezio merkeagoak ere iragarri dituzte.

Anfibioak babesteko gune berrira bisita gidatua antolatu dute

Otxandio | Mekoleta auzoan, erre-karen ondoko inguru batean, dagoen anfibio komunitatea zaintzeko gune bat egin dute. Iazko azaroan hasitako proiektua (urmaelak, ibilbidea, informazio panelak...) amaituta dago eta zapatuan bisita gidatua antolatu dute bertatik bertara ezagutzeko. Presazelaian batuko dira, 10:30ean. Proiektua egiteko Jaurizarren laguntza jaso dute.



Donostian eginiko ekitaldian, kudeaketa aurreratuaren diploma jaso du ANBOTOK

Durangaldea | Azken bi urteotan kudeaketa arloan ahalegin berezia egin dute Tokikomen batzen diren hainbat tokiko hedabidek. Euskalitek emandako formakuntzaren bidez, kudeaketa aurreratu sakondu dute, enpresa ikuspuntua eguneroko jardunean txertatuz. Horrela, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria lortu dute hainbat hedabidek, tartean ANBOTOK Arantxa Tapia sailburuaren eskutik. “Arlo guztietan eraginkorrakoak izateko tresnak aurkitu ditugu. Aurrerapausoak egin ditugun arren, hau hasiera baino ez da izan. Arlo honetan sakontzea da helburua”, azaldu du Jone Guenetxea zuzendariak.

BON **10+**

Zure 20 euroak 30 bilakatzen dira.



www.bono10.eus

Gabonak

Durangaldeko gabonetako egitarauak



Iaz 7.600 bisitari eduki zituen Landako Guneko pista.

Durangoko izotz-pista abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra zabalik

Iazko prezioak mantenduko dituzte Landako Guneko pistan; helduentzat 3,5 euro balioko du sarrerak, eta 14 urtez beherakoentzat 3 euro

Pelikuletan agertzen diren hirietan bezala, Durangok ere izotz-pista edukiko du Gabonetan, azken urteetako ohiturari eutsita. Lagunartean patinatzeko aukera eskainiko du, beraz, Landako Gunean ezarriko den instalazioak. Abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra bitartean, herritarren gozagarri izango da, eta, zelan ez, batez ere ume eta gaztetxoena.

Goizetan 10:30etik 13:30era bitartean eta arratsaldetan 17:00etatik 20:30era artean egongo da zabalik izotz gunea. Barikua eta zapatuetan ordutegi zabalagoa edukiko du: 21:30etatik 00:30etara ere patinatu ahal izango da. Bestalde, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da, jaieguna dira eta.

Iazko prezioak mantenduko dituzte: helduentzat 3,5 euro da sarrera, eta 14 urtetik beherakoentzat, 3 euro.

Ikastaroak, prest

Horrez gainera, prest daude izotz-pistan ematen dituzten ikastaroak. Guztira, 24 ikastaro izango dira, eta 500 plaza egongo direla jakinarazi dute. Ikastaro bakoitzaren

prezinoa 5 euro da eta, urtero legez, adinaren arabera taldeka banatuko dituzte parte-hartzaileak: 4-7 urte artekoak, 8-14 artekoak eta 15 urtetik gorakoak. Inskripzioa martxan dago jada Pinondo Etxean.

Iaz, 7.600 lagun

Iazko Gabonetan, 7.600 lagun egon ziren izotz-pistan patinatzen, duela urte bi baino 1.100 gehiago. Ondorioz, balorazio ona egin zuen udalak. Bere arabera, Durangokoa da Gabonetan ipintzen den erkidegoko pista-rik handiena, 900 metro karratukoa. Horregatik, bisitariak Bizkaiko beste herrietatik zein Araba eta Gipuzkoatik ere etorri izan zirela nabarmendu zuten balantzea egiterakoan. 7.600 bisitarietatik 4.500 umeak izan ziren, eta ikastaroetan 980 pertsonak hartu zuten parte.

Parkeak, herririk herri

Bestalde, Durangaldeko hainbat herritan ere umeentzako parkeak ipiniko dituzte opor hauetan. Besteak beste, Abadiñon, Berrizen, Elorrian, Iurretan, Zaldibarren eta Zornotzan.

ABADIÑO

Abenduak 16, zapatua

19:00-22:00 Debla (de norte a sur) (5 euro) Traña-Matienako frontoian.

Abenduak 17, domeka

9:30 Durangaldeko eskola mailako xake txapelketa. Errota Kultur Etxean.

Abenduak 20, eguaztena

18:00 Ipuin kontaldia, Oihana Etxegibelegaz. Udal mediatekan.

Abenduak 21, eguena

19:00 Postal lehiaketako sari banaketa. Errota Kultur Etxean.

Abenduak 22, barikua

18:30 Gabonetako kontzertua Traña-Matienan.

Abenduak 24, domeka

16:30 Olentzeroren kalejira. Traña/Matiena, Muntzaratz, Txanporta.

Abenduak 27-28-29:

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Umeen gabonetako jolaslekua. 0-9 urte. Probalekuan. (txutxu trenan egongo da)

Abenduak 30, zapatua

Gabonetako lasterketa

12:00 (0-10) **12:15** (11-15) **12:30** (16-100)

19:30 Gabonetako Kontzertua: Gerardo Rifon (organoa) eta Lucia Gomez (Mezzosopranoa). San Trokaz elizan.

Urtarrilak 3, eguaztena

16:00 Saskibaloitxapelketa triangularra. Traña-Matienako kiroldegian.

Urtarrilak 4, eguena

18:00 Umeentzako antzerkia, Apustua Txintxaun kolektiboagaz. Errota kultur etxean.

Urtarrilak 5, barikua

18:00 Erregeen kabalgata. Muntzaratz, Zelaieta, Traña-Matiena.

ATXONDO

Abenduak 22, barikua

17:00 Olentzero eta Mari Domingigaz kalejira. Ostein, txokolatada.

Abenduak 24, domeka

9:00 Axpen Olentzerogaz kalejira, baserriz baserri. (Batutako dirua EITBko maratoina bideratuko dute).

14:30 Arrazolan. Olentzero abestuko dute auzoko baserrietan.

BERRIZ

Abenduak 24, domeka

Olentzero eta Mari Domingi

9:30 Olakuetakoz plazan, auzoetara joateko

17:30 Olentzero eta Mari Domingigaz irteera udaletxetik probalekura. Animatu eta baserriar jantzita etorri!

Urtarrilak 4, eguena

Gabonetako haur-parkea

12:00 - 13:30 / 16:00 - 20:00 Berrizburu kiroldegian

Urtarrilak 5, barikua

Errege eguna

17:30 Erregeen kabalgata Komentutik Olakueta plazaraino joango da. Ondoren, txokolata hartuko dugu.

Hiper Eroski Abadiñon erosteko modu berri bat

EROSKI club
kreditu-txartel
berria



EROSKI Abadiño
hipermerkatu berria
Azoka kutsuko hipermerkatua



Gabon jaiak 2017

DURANGO

Abenduaren 12tik 22ra

16:00-21:00 JOSTAILUEN BILKETA. Landako kiroldegiko sotoetan.

Urtarrilaren 6ra bitartean

JAIOTZA ERAKUSKETEN IBILBIDEA

Egilea: Luis Ibáñez

1. Carnicería Astigarraga (Uribarri kalea,9)
2. Farmacia Valentín Bazán (Uribarri kalea, 5)
3. Santa Maria Basilikan bi jaiotza (bi belen)
4. Ogien artean (Andra Mari kalea, 18)
5. Pertsona Nagusien kafetegian (Astarloa, 1)
6. Jaiotza mekanikoa (San Frantzisko kalea, 15 / 18:00 - 20:00)

Abenduaren 15etik 24ra

Pintura erakusketa. Egilea: Gaztelu Urrutia Astelehenetik barikura. Zapauak, domekak eta jaiegunak: 12:00-14:00 / 18:00-20:00. Ezkurdi erakusketa aretoan.

Abenduak 15, barikua

19:00 Musika Eskolako Taldeen Gabonetako Kontzertua. Sarrera: 3€

19:00 Helduentzako ipuin kontaketa. "Hitzen lapurra". Dorleta Kortazar. Bizenta Mogel Bibliotekan.

Abenduak 16, zapatua

11:00 Txikigym solidarioa. Noren alde: El pulmón de Gaia para Rally solidario Pandemónium. Landako 1 kiroldegian.

12:00 Partidu solidarioa: Real Madril - Extremeño Noren alde: Geu Be, Río de Oro eta Angelman Sindromea. Tabira zelaian.

18:00 XX. Gabon Kanten Emanaldia. Gonbidapenak Centro Palentinoan. San Agustin Kultur Gunean

20:00 Musika kontzertua. Herri Maite akordeoi taldea eta organoa. Andra Mariko Basilikan



Pirritx, Porrotx eta Marimotots Durangoko Landako Gunean arituko dira.

Abenduak 17, domeka

11:30 50. Gabon kanten haur eta gazte jaialdia Landako Gunean.

18:00 Haur antzerkia (euskaraz). "GU". Borobil teatroa. 5 urtetik aurrera. Sarrera: 4€ (bazkideak 3€) San Agustin Kultur Gunean.

19:00 Gabonetako kontzertua. Tabira Musika Banda eta Musika Eskolako Banda Gazte Zuzendariak: Luis Orduña Ridruejo eta Jose Gallardo Llorach. Andra Mariko Basilikan

Abenduak 18 eta 19

17:15 eta **18:30** gabonetako kontzertuak (Haurrak). Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioa.

Abenduak 20, eguaztena

18:00 eta **19:30** Gabonetako kontzertuak (Musika tresnen ikasleak) Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioa.

19:00 Peter Pan. L' Atelier gazte ballet-a. Sarrera: 8€. (L'Atelierren salgai). San Agustin Kultur Gunean.

Abenduak 21, eguena

19:00 Peter Pan. L' Atelier gazte-balleta Sarrera : 8€ (L'Atelierren salgai). San Agustin Kultur Gunean.

Abenduak 22, barikua

20:00 Zine mutua organo musikagaz "El maquinista de la General". Organista: Thomas Ospital. Andra Mariko Basilikan.

Abenduak 23, zapatua

Gabon jaia

10:00-20:00 Azoka.

16:30-19:00 Haur tailerrak eta jolasak. Andra Mariko Elizpean.

19:00 Meza Santa Anan.

10:00-13:00 Zumbathon solidarioa Noren alde: ASA elkarte. Landako 1 kiroldegian.

10:00-13:00 Spinnithon solidarioa

Noren alde: JAED. Landako 2 kiroldegian.

12:00/12:45 Ipuin kontaketa ingelesez "Saving Christmas" (3-8 urteko umeentzat) Bizenta Mogel Bibliotekan.

20:15 Gabonetako kontzertua. Durangoko Orfeoia Andra Mariko Basilikan.

Abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra

Izotz-pista Ikastaroetan izena emateko, abenduaren 11tik aurrera Pinondo Etxean.

Abenduak 24, domeka

13:00 Gabon kontzertua. Txistua, pianoa, biolina, haria, metalak eta abeslariak. San Frantzisko Elizan.

18:30 Olentzero eta Mari Domingi

Txoritxu Alai dantza taldea, Kriskitin dantza taldea, Tronperri dantza taldea, Inurri Eskaut taldea, Txiri Txiri taldea, Tabira Musika Banda, B. Ertzilla Musika Banda, Jaizale Txistu taldea eta Trikitixa eta Pandero Eskolak. **Irteera:** F.J. Zumarraga Institututik **Ibilbidea:** Institutua, F.J. de Zumarraga, Ermodo kalea, Zumalakarregi kalea eta Andra Mariako Elizpea.

Abenduak 26, martitzena

16:00 eta **18:30** Pirritx, Porrotx eta Marimotots: "Borobilean". Landako Gunean. Sarrerak Pinondo Etxean abenduaren 13tik aurrera lekua bete arte (gehienez 10 sarrera pertsonako)

Abenduak 27 eta 28

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Txu txu trenna Geltokia: Madalenan

Abenduak 28, 29, eta 30

11:00-14:00 / 16:00-20:00 Gabonetako haur parkea. Umeak doan. Helduak 1€. Landako Gunean

18:00 Maluta, Durango-Basauriko eguberri zirkua Kable gaineko oreka, akrobazia, malabareak, diabolok, hula hoop eta fitness pilota. Helduak 7€. Umeak 4€ (Bazkideak: 5€ eta 3€) San Agustin Kultur Gunean.



GABONAK 2017-18

ZALDIBAR



EUSKARALDIA

EUSKARAK 365 EGUN

ABENDUAK 24

BADATZ MARI DOMINGI ETA OLENTZERO !!

12:00etan HARRERA Olazar kalean, gero danok Zaldia plazara kalejiran

ABENDUAK 26 SAN ESTEBAN EGUNA

18:30etik aurrera Eskolako pilotalekuan;Taloa, txorizoa eta gaztaina erreak

ABENDUAK 28 eta 29 UMEEN GABONETAKO PARKEA

11:00-13:30 17:00-19:30

ABENDUAK 31

16:30ean XX. OLAZAR PILOTA TXAPELKET Ako finalak

17:00etan IV. SAN SILVESTRE lasterketa

URTARRILAK 1

IGOERA SANTAMARINAZARRERA

10:30ean talde argazkia eta hamarretakoa

URTARRILAK 3

HAUR ANTZERKIA

17:00 Umeentzako antzerkia Olazar pilotalekuan

URTARRILAK 5

ERREGEEN DESFILEA

18:30ean Erregeen desfilearen hasiera

Abenduak 30 Larunbata**10:00 "EZKURDI" Futbol lehiaketa solidarioa** Sarrera bat jostailu bat. Arripasueta zelaian.**19:00-21:00 Gabon kanten kalejira** Durangoko Orfeoia.**Abenduak 31 Igandea****San Silvestre Lasterketa****17:00** Umeak**17:15** Umeak**17:30** 14 urtetik gora

Irteera: Santa Ana Plaza.

Urtarrila 2, 3 eta 4**16:00-20:00 Gabonetako haur parkea**

Umeak doan. Helduak: 1€. Landako Gunean.

Abenduak 5 Ostirala**Erregeen kabalgata****18:45** Frai Juan de Zumarraga.**19:15** Ezkurdi.**19:35** Udaletxe plaza.**20:15** Andra Mariako elizpea.**Abenduak 7 Igandea****18:00 JAED-eko zozketa benefikoa**

Andra Mariako Elizpean.

18:30 Gabonetako dantzaldia adinekoentzat

Tolin abeslaria. Landako I Kiroldegian.

ELORRIO**Abenduak 15, ostirala****17:00 Liburutegiko irakurketa lehiaketaren sari-banaketa.** Iturri kultur etxean.**Abenduak 16, zapatua****20:00 Berrio-Otxoa Abesbatza eta Asturiasko Coral de San Martín de Sotondrio Abesbatzaren Gabon kontzertua.** Santa Ana kapera.**Abenduak 19, martitzena****19:30** Musika eskolako **konbo, kantu eta biolin ikasleen emanaldia.** Ateneo.**Abenduak 20, asteazkena****18:30** Musika eskolako **trikitilari, soinu-jole, kantu ikasle eta abarren Gabon eta euskal kanten emanaldia.** Herriko Plaza.**Abenduak 22, barikua****Goizez,** Eskoletako umeen **Santomas azoka,** bertsuak eta **Gabon kanta.** Herriko plaza.**22:30 Borrokan eta Sofaren kontzertua.** Ateneo.**Abenduak 23, zapatua****11:45 San Txibiri herri lasterketa (umetxoak).****12:30 San Txibiri herri lasterketa (helduak).****18:00 Sun magoa:** "Magic spectacular". Arriola Antzokia.**Abenduak 24, igandea****Goizez, Mercadillo popular:** saldu, erosi, oparitu, trukatu.**17:00 Badatoz Olentzero eta Mari Domingi!**

Herriko Plaza.

18:00 Besaide dantza taldea. Herriko Plaza.**Abenduak 25, astelehena****12:00 Basilikako Koruaren emanaldia** mezatan.**Abenduak 30, larunbata****18:00 Txirri, Mirri eta Txirribiton:** "Patxistein doktorea". Arriola Antzokia.**Abenduak 31, gabonzahar****9:00 Erdellakoekin mendira.** Gongetari eta Atxaurrutxaganeri agur egitera.**Urtarrilak 1, urteberri****9:00 Guztiok Erdellara!****Urtarrilak 5, ostirala****18:00 Errege Magoen gaua.** Ekialdeko Errege Magoen etorrera. Elizpea.

Abendu Koplak abestuko dituzte etxerik etxe, lurretan.

Urtarrilak 6, larunbata**Gazetako Erregeak.** Egunez, meza, dantzariak, trikitilariak eta herri kirolak. **Gauez, Luhartz, berakatz-zopa eta txokolatea.**

Atera argakia hiriari erakusketa Iturri kultur etxean abendu osoan zehar.

HAUR PARKEAK (11:30-13:30 eta 16:30-19:30):

abenduaren 27, 28 eta 29an eta

urtarrilaren 2, 3 eta 4an

2-10 urtekoentzat, Hilario Azkarate frontoian.

11-14 urte bitarteko gaztetxoentzat, elizpean.

Gogoan izan, gainera, Santa Luzia Igurian, Santomas Mendrakan eta San Esteban Berrian.

GARAI**Abenduak 24****10:00 Olentzero abesteko irteera etxerik etxe.** Eguerdian bazkaria, eta arratsaldean falta diren etxeetara kantatzera.**Abenduak 31****11:00** Arakaldora mendi irteera.**IURRETA****Abenduak 15, ostirala****09:00-12:30 / 16:00-19:00** lurretako elkartasun azoka. Ibarretxe Kultur Etxean**Ipuin-kontalariak****17:30** 3-4 urteko haurrak lagunduta**18:00** 5 urtetik gorako haurrak

Itziar Saenz de Ojer.

Abenduak 21**19:00 Emanaldia.** Maiztegiko Lehen Hezkuntzako ahots tailerreko haurren emanaldia. Sarrera gonbidapenarekin (abenduaren 11tik aurrera Ibarretxe Kultur Etxean). Ibarretxe Kultur Etxean.**Abenduak 22, barikua****"Olentzerori gutunak"** Eskolako umeek beraien gutunak ekarriko dituzte Ibarretxe Kultur Etxera. Eskolekin hitzartutako pailaso eta txotxongilo saioak. Ibarretxe Kultur Etxean**10:00 Txotxongiloak:** Rosa Maria Martinez "Beti lagun" 2 - 3 urtekoentzako.**"Xalto eta Korri pailasok"****10:15** 4 - 5 urte eta 1. maila**11:30** 2 - 3 - 4. mailak

Maiztegi Herri Ikastetxean.

19:00 Helduentzako ipuin kontalaria

Boni Ofogo. "El elefante que perdio su ojo" Ibarretxe Kultur Etxean

Abenduak 23, zapatua**10:00 Abendu koplak.** Koplak abestuko dira etxez-etxe. irteera Aita San Migel plazan**Abenduak 24, igandea****OLENTERO ETA MARI DOMINGIRI HARRERA****11:30** Olentzero eta Mari Domingiri itzaroten Aita San Migel Plazan.**Ondoren Kalejira** Askondoraino trikitilari-gaz alaiturik.**12:00** Olentzero eta Mari Domingiri harrera.Ondoren, ume guztiak batera, **familia argakia aterako da.** Elkartasun azokako otzararen zozketa. Gutun-postalen eta erakusleho lehiaketaren sari-ematea. Zatoz baseritar jantzita!**Abenduak 27, 28 eta 29****11:30 -13:30 / 17:00-20:00 Umeentzako gabonetako parkea.** Ludoteka, puzgarriak, jolasak eta tailerrak. Olaburu frontoian.**Abenduak 27, 28****11:30 -13:30 / 16:00-20:00** Txu-txu trenea Korreoseko geltokian**Olentzero eta Mari Domingi hilaren 24an, Zaldibarren**

Parte-hartzailea eta herrikoia den ekimenean 115 bat zaldibartar arituko dira.

Urtarrilak 2, martitzena**11:00** **Magia ikuskizun eta tailerra**

"Munduari bira 80 trukutan"

5-8 urtetakoak (2009-2012). Herri Bibliotekan. Plaza mugatuak, aurretiaz izena eman behar da

MALLABIA**Abenduak 19, martitzena****18:30** **Basoei buruzko hitzaldia.**

Hizlaria: Aitor Onaindia. Kontzejuzarrean.

Abenduak 20, eguaztena**19:00** **'Cantábrico' dokumentala.**

Dokumentalean Fernando Garitagoitiak parte hartu du. Kontzejuzarrean.

Abenduak 22, barikua**20:30** **Gabon kanta Mallabiko abesbatzekin.** Plazan.katerin
ardoak
inaki
uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

ZORIONAK

eta URTE BERRI ON



INGELES AKADEMIA

Zabalekoa 11 behea - DURANGO - Tel.: 946 521 164



Euskal Herriko kulturari garrantzia eman nahian eta umore eta magia apur bat erabilita, 115 bat herritarrek Olentzeroren eta Mari Domingiren jaitsieran parte hartuko dute hiru garren urtez Zaldibarren, etxeko txikienei irribarre bat ateratzeko asmoz. Abenduaren 24an, 12:00etan, menditik datozen lagunei harrera egingo diete Olazar kalean, eta kalejiran udal-txe zaharrera joango dira. Bertan, Olentzerok eta Mari Domingi euskaraz bizitzeko, bihotz oneko baina bihurri izateko eta elkarlana bultzatzeko deia egingo dute.

Horrez gain, antolatzaileek ekimen honen atzean herritarrak daudela eta zaldibartar guztiei parte hartzeko deia egin diete.

Abenduak 23, zapatua

11:00 Gabon kantak baserri baserri abesten.

Abenduak 24, igandea

18:30 Olentzero eta Mari Domingi. Plazan.

Abenduak 26, 27 eta 29

09:30-13:30 Umeentzako ekintzak. Satxibu aisi-alde elkarteak antolatuta.

Abenduak 28, eguna

19:00 Ikusentzunekoa eta hitzaldia. 'Kayakarekin munduan zehar'. Kontzejuzarreen.

Abenduak 29

Zugarramurdira irteera.

Goizean joan eta 16:30ean itzuli. Satxibu aisi-alde elkarteak antolatuta.

Abenduak 30

10:30 Tennis txiki torneoa. 8-14 urte artekoentzat. Eskolan.

Urtarrilak 2-3

11:30-13:30 / 16:30-19:30 Haur parkea: Puzgarriak, jumping-a. Frontoian.

Urtarrilak 4, eguna

19:00 'Construcción de viviendas dignas y saludables en Monzote (Nicaragua)' Kontzejuzarreen.

Urtarrilak 13, zapatua

11:00-13:00 Euskaraz egiteko motibazio taillerra. Kontzejuzarreen.

Urtarrilak 17, 24 eta 31

18:30-20:00 Argazki digitalak egiteko oinarriko ikastaroak. Kontzejuzarreen.

Abenduak 22ra arte,

Argazki erakusketa. Fernando Alonso.

Astegunetan 19:00-20:15.

Asteburuetan: 11:30-13:30. Kontzejuzarreen.

MAÑARIA

Abenduak 22, barikua

17:45 Ipuin kontalaria: Lupe Lekuona. Liburutegian.

Abenduak 23 eta 24

09:00-13:00 Gabonetako abestiak etxex abesten.

Abenduak 24, domeka

18:00 Olentzero eta Mari Domingiri etorrera. Txokolatea egongo da. Plazan.

OTXANDIO

Abenduak 22, barikua

18:00 Argitxo eta Anbrosi umeen eskutitzak batuko dituzte kontzejuean. Ondoren txokolatea.

Abenduak 23, zapatua

16:30 Gabonetako ospakizuna Otxandioko Egoiztan Pasealeku Jubilatuen Elkarteak antolatuta.

Abenduak 23, zapatua

19:30 Gabon kantaldia. Legutio, Aramaio, Arrasate eta Otxandiokoen arteko kantaldia.

Abenduak 24, domeka

19:00 Olentzero eta berarekin herriko txistulari eta Oihandi abesbatzak herriko kaleetatik zehar gabon kantuak abestuz, kontseilupean amaitzeko. Ondoren, gure herriko ohiturak bizirik mantenduz ardo beroa eta gaztainsirik Pasealeku jubilatutako elkartearen txokoan.

Abenduak 24, igandea

21:30 Gabonetako errifaren zozketa, Vulkano K.Elkartea.

Abenduak 29, barikua

12:00 Haur antzerkia gimnasioan: Rockeroak

Abenduak 30, zapatua

13:00-14:30 Koadro erakusketa Bolalekuan: Santi Kapanagaren pinturak

Abenduak 31, domeka

09:30 Urteko azken mendi irteera. Arangio mendira (1.102 m),


13:00-14:30 Koadro erakusketa Bolalekuan: Santi Kapanagaren pinturak.

Urtarrilak 6 eta 7

13:00-14:30 Koadro erakusketa Bolalekuan: Santi Kapanagaren pinturak.

Urtarrilak 7, domeka

17:30 Umeentzako zinema euskaraz.



Nazioarteko Krosak korrikalaririk onenak batuko ditu.

ZALDIBAR

Abenduak 24, domeka

Badatoz Mari Domingi eta Olentzero!
12:00 Harrera Olazar kalean, gero danok Zaldua plazara kalejiran.

12:30 ONGI ETORRI jaialditxo.

Abenduak 26, martitzena

San Esteban Eguna
18:30 Eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa eta gaztainsirik.

Abenduak 28 eta 29

Umeen Gabonetako Parkea
11:00- 13:30 eta **17:00- 19:30**

Abenduak 31, domeka

16:30 XX. Olazar pilota txapelketako finalak.

17:00 IV. San Silvestre lasterketa.

Urtarrilak 1, astelehena

Igoera Santamarinazarrera
10:30 Talde argazkia eta hamarretakoa.

Urtarrilak 3, eguaztena

Haur antzerkia:
17:00 Olazar pilotalekuan

Urtarrilak 5, barikua

Erregeen desfilea
18:30 ibilbidea: Haurreskola, Autonomia, Euskal Herria, Jose Antonio Agirre Parkea.

ZORNOTZA

Abenduak 16, zapatua

20:00 Gauero, 'Not In My Town'. Sari banaketa. Zornotza Aretoan.

Abenduak 22, barikua

21:00 Gabonetako kontzertua. Zubiaur musika eskola.Zornotza Aretoan.

Abenduak 23, zapatua

12:30 Herritik zehar

13:30 Abesbatzen emanaldia. Kalbarion.

20:00 Gauera, 'Nun Ikusiot Nik Zure Aurpegixe 2017'.Zornotza Aretoan.

Abenduak 24, domeka

09:30 XV. Belatxikieta Igoera. Zelaieta Parkean.

18:00 Olentzero. Udabarri Dantza Taldea. Herriko Plazan.

Abenduak 26-30

Gabonetan Jai.
11:30-13:30 // 17:00-21:00 Umeentzako Gabonetako Parkea. Egunero ikuskizuna 19:00etan. Zelaieta Zentroan.

Gauero Gabonetan.

17:00-21:30 Gazteentzako Gabonetako esparrua. Zelaieta Zentroan.

Abenduak 28, eguna

18:30 'Kontu-Kantari 2'. La Resistens. Zornotza Aretoan.

Abenduak 31, domeka

16:30 San Silvestre lasterketa. Zubiondon.

Urtarrilak 5, barikua

18:00 Erregeen kabalgata. Gudari-Herriko plazan.

Urtarrilak 7, domeka

09:30 Nazioarteko Krosa.

Urtarrilak 13, zapatua

18:00 Ongintzako abesbatzen kontzertua. Bikarte elkartearen alde. Pilotalekuan.

Neumáticos Etxebarria

Uribitarte Industr. 6 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarria.com



www.vialider.es



Gabonetan
pneumatikoak
erosiz gero,
otzara bete opari

x2
pneumatiko

* Stock-a
amaitu arte





UNDARRI BIKE

**Bizikleten salmenta
eta konponketa
Eski taulen mantenua**

Bidebarrieta, 5 behea
IURRETA
Tel.: 946 817 808
www.undarribike.com



Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak
eta aholkularitza

Goienkalea, 16-1. esk.
DURANGO
Tel.: 946 817 380
www.anacamarero.com



produktu
sortak

- Aurpegiko larruzalaren garbiketa ·
- Aurpegi-tratamendua ·
- Masaje lasaigarriak ·
- Betileen luzapenak ·



opari
txartelak



turroi
eta gozo
artisauak

**Magdalena
Gozotegia**

Fray Juan Zumarraga, 3
DURANGO
Tel.: 946 810 929



Folder

Zumalakarregi kalea, 10
DURANGO
Tel.: 946 21 73 42
www.folderdurango.es

GABONETAKO ORDUTEGIA

Astelehenetik- ostiralera:
9:00-13:30 / 16:00-20:00

Larunbata:
10:00-13:30 / 17:00-20:00

*“Ekarri zuen gutuna
Olentzerorentzat”*



hitz
liburudenda

Artekalea, 23
DURANGO
Tel.: 946 810 776
info@hitzliburudenda.com



ATXARTE
Mendiko denda

Santa Ana plaza
DURANGO
Tel.: 946 550 455
www.atxartemendikodenda.com



Komertzioak Gabonetako apaingarriz beteko dituzte Iurretan, erakusleihorik onenaren bila

Udalak egitarau berezia antolatu du datozen asteetarako, herriko zenbait elkarteren ekarpenagaz; astelehenean aurkeztu zituzten ekintzak



Urtarrilaren 5era arte egongo dira ikusgai erakusleio apainduak.

Gabonek duten gauzarik adierazgarrienetako bat argiak, koloreak eta apaingarriak kaleratzea da. Etxeetan ipintzen diren arbolak, kaleak janzten dituzten argiak, Olentzero eta Mari Domingiren irudiak... Zenbait lekutan komertzioen, tabernen eta zerbitzuen fatxadak sasoi horretara egokitzeko saiakera ere egiten dute, eta hori da, hain justu ere, Iurretan bultzatu gura dutena. Erakusleio lehiaketa antolatu dute, eta, horri esker, hainbat komertzio apainduta egongo dira abenduaren 22tik urtarrilaren 5era bitartean.

Denda eta abarrek abenduaren 20a baino lehen eman behar dute izena ekimenean parte hartu ahal

Besteak beste, sormena, argiztapena, modernitatea eta berrikuntza edukiko dituzte kontuan balorazioa egiterakoan

izateko, kultur-etxea@iurreta.eus helbidera idatzita. Euren erakusleioak udaleko kultura sailak aukeraturako epaimahai batek aztertuko ditu. Besteak beste, sormena, argiztapena, modernitatea eta berrikuntza edukiko dituzte kontuan balorazioa egiterakoan.

Epaileek erabakia hartzean, www.iurreta.eus webgunean argitaratuko dute emaitza. Gainera, hilaren 24an sari banaketa ekitaldia egingo dute, 12:00etan, Askondon.

Postaletan ere bai

Bestalde, postal lehiaketa ere prestatu dute Iu-

rretan. Kasu honetan, 13 urtez beherako umeei zuzendutako ekimena da, eta hilaren 20rako entregatu behar dituzte lanak Ibarretxe kultur etxean. Hiru sari eskainiko dituzte, eta horiek ere abenduaren 24ko sari banaketa ekitaldian aurkeztuko dituzte.

Umeen parkea Olaburun

Asteleheneko prentsaurrekoan, udal ordezkariak gainera Maiztegi eskolako guraso elkarteko kideak eta Anderebide emakume taldekoak ere egon ziren. Izan ere, talde horiek zein Kimuak aisialdi elkarteak ekarpena egin dute Gabonetako egitaraua osatzeko. Esaterako, hilaren 27an, 28an eta 29an Gabonetako Parkea ipiniko dute Kimuakekoek Olaburu pilotalekuan. 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara egongo da.

Elkartasun Azoka, gaur arte

Anderebidekoek, ostera, aste honetan garatu dute euren ekintza. Elkartasun Azoka bat ezarri dute Ibarretxen, eta gaur iluntzera arte egongo da zabalik. Batutako dirua La Otra Mirada elkarteari emango diote, Senegalen garatzen diharduen proiektuari laguntzeko. Jostailuak, txiki eta helduentzako askotariko arropak, liburuak, bitxiak... denetarik izaten dute Elkartasun Azokan, eta harrera ona izaten duela aitortu dute antolatzaileek.

Iurretarek emandako objektuak dira salgai jarritakoak eta bost euroko erosketa egiten dutenek hainbat produktuz osatutako otzara baten zozketan parte hartuko dute. "Gabon egunen ataria den egun hauetan, diru asko gastatu gabe, opariren bat egiteko aukera errazten dio azokak askori", aurkezpenean azaldu dutenez. Honakoa azokaren bosgarren edizioa da.

HEKI
HERRI KIROL KLUBA
Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com
f Heki Herri Kirol Kluba

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak
Ondo pasa gabon jaiak!

EL BADULAKE
osagarriak

Barrenkalea, 7
DURANGO
www.elbadulakeonline.com

bed's
el descanso y tú

Alsedan Zoriontsua!

bed's Koltxoi - denda
Alluitz, 1 - Durango
T.944 005 980

Guztiontzako opariak!

euskalinge

Magdalena Lenceria

Toallak eta mahai-oihalak

Pistinako bainujantziak 8XL tailara arte
Aholkularitza pertsonalizatua
Denboraldi berria pijama eta batetan emakume eta gizonentzat

Ermodo kalea, 27 - Tel.: 94 402 40 43 - DURANGO



Arkumea Bizkarra erara Cantharellus-ekin

Arkumea hiru bat hatzeko zatitan moztu. Tipula laukitan poxatzen utzi, kazola batean. Behin poxatuta, gehitu tomate heldua eta kalabaza, zatitxotan. Apurka-apurka sueztitzen den bitartean, arkumea gorritzeko aprobetxatuko dugu. Baina, lehenago, irinetan nahasi.

Behin gorrituta, kazola batean jarriko dugu tipularekin, tomatearekin eta kalabazarekin batera, eta 10 minutuz sutan utziko dugu.

Arkumea pintza batekin atera eta erretilu batean jarri. Pure-egiteko ontzian tomate, tipula eta kalabaza saltsa egin.

Azenarioa zati txikitan moztu. Kazola bat urez bete eta arkumea bertan sartu. Sutan jarri eta 30 minutuz su txikian egosten utzi. Jarraian, Cantharellus-ak gehitu eta 10 minutuan egosten utzi.

Salda sendotzen hasten denean, sartu sardexka edo orratz bat arkumeari, egosketa-puntua neurtzeko. Ondo sartzen bada, gatza bota eta 10 minutuz bere horretan utzi. Gero, platerera atera.



Elisabete Bizkarrategorra

**Bizkarra Jatetxea
ABADIÑO**

OSAGIAK

- Oliba-olioa
- Tipula bat
- Baratxuri-atal bat
- 2 tomate heldu
- Azenario bat
- 200 gramo kalabaza gorri
- Gatza
- 100 gramo Cantharellus
- Arrautzaztatzeko irina, 600 gramo
- Ura
- Arkumea

on egin!

Bizkarra
Jatetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO
Tel.: 946 812 026
burdi-kurutze@hotmail.com

Gabonetan janaria prestatzeko astirik ez?
Guk lagunduko dizugu
Etxera eramateko janaria, betikoa,
etxeokaren modukoa

express

**GABON ZORIONTSUAK
ETA URTE BARRI ON !**

JAUREGI - GORO, S.L.
Intxaurrondo kalea, 7
DURANGO

Frai Juan Zumarraga, 15 DURANGO

SIMPLY supermerkatua DURANGO

Gudari kalea, 49 ZORNOTZA

San Juan kalea, 13 EIBAR

afede



Gure Jostailu Denda



14,99 €

ZEIN ANIMALIA NAIZ
 ASMATU BESTE PARTAIDEEN
 LAGUNTZAZ KOPETAN DUZUN
 ANIMALIA



19,99€

BAZEN BEHIN BIZITZA
 GIZA GORPUTZARI BURUZKO
 2.200 GALDERA-ERANTZUN, 5
 ATALETAN BANATUTA
 GEHIAGO



25,99€

**OLENTZERO
 ABESTU ETA
 DANTZATU**



19,99€

PARTY & CO. JUNIOR
 EUSKARAZ



9,99 €

ZEIN DA ZEIN?
 ASMATU AUKARIAREN
 ANIMALIA-TXARTELA



39,99€

**EUSKOTREN TREN
 ELEKTRIKOA**
 NEURRIAK: 150X100 ZM.
 PISTAREN LUZEERA 3,9M



29,99€

DUNI KONTU KONTALARI
 ENTZUN, IRAKURRI ETA JOLASTU
 EUSKARAZ IPUIN KONTALARI
 HONEKIN. 8 IPUIN EZAGUN



29,99€

CATAN EUSKARAZ
 ESTRATEGIA ETA ABILEZIA
 JOKOA



12,95€

**LURREKO
 EGURREZKO PUZZLEA
 ALFABETOAREKIN**

Anboto
 Komunikabideak

@anboto

@anbotokomunikabideak

**Anbotoren lagunen artean AFEDEKO 130 euroko 5 OPARI BONO
 ZOZKATUKO DITUGU. Izan zaitetz Anbotoren lagun!**

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558





Hardcore gaua

KONTZERTUAK
ELORRIO :: Abenduak 15



Alerta, Worth It, DROP!, eta NorkZer?! gaztetxean

Alerta musika talde durangarrak 20. urteurreneko bira amaituko du emanaldi honeguz. Taldekideen berbetan "More than

20 years together" bira berezia izan da beraiantzat, eta zaleek emandako berotasuna esker onez itzultzeko, oholtzaren gainean



Domekan baserriko produktuen azoka Otxandion

AZOKA | Kementsu elkarteak urtero antolatzen duen baserriko produktuen eta artisauen azoka egingo dute domeka honetan, hilak 17. Aurtengo honetan, 45 postu egongo dira, eta bertan mota

guztietako produktuak salduko dituzte: gazta, ortuariak, ezti, pate, txerriak... Beste alde batetik, artisauak ere egongo dira. Horrez gainera, erakustaldi bat egongo da, artilegaz egindako

zenbait produktugaz, Kirolari dagokionez, plaza garrantzitsua izango da Otxandioko azoka, izan ere, Euskal Herriko urrezko aizkoraren finalurrekoa jokatu dute Aitzol Atutxak eta Mieltxo Mindegia; harri-jasotzaileak ere egongo dira. Goiz osoan zehar, Gesaltzako txarangak kaleak girotuko ditu, eta taloak eta txorizoa dastatzeko aukera ere egongo da.

Abenduaren 15ean

ELORRIO sari banaketa
Liburutegiko irakurketa eta orri markagailu lehiaketako sari banaketa,
18:30ean, Iturrin.

ELORRIO emanaldia
'Mundutik Elorriora, Elorriotik Mundura'
dokumentalaren estreinua, 18:30ean, Arriolan.

DURANGO solasaldia
'Koaderno handia'
liburuari buruz,
18:00etan, Andragunean.

DURANGO ipuin kontaketa
'Hitzen lapurra'
Dorleta Kortazarren eskutik,
19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

ABADIÑO emanaldia
'Handia'
pelikularen emanaldia,
20:00etan, Errota kultur etxean. Eneko Sagardoy aktoreak aurkeztuko du. Doan.

ZORNOTZA antzerkia
Iberian Gangsters.
21:00etan, Zornotza aretoan.

Abenduaren 16an

BERRIZ antzerkia
'España ingobernable'
20:00etan, Kultur Etxean.

ELORRIO antzerkia
'Comunicado de muerte'
19:00etan, Ateneon.

DURANGO deialdia
'Feministok gerraren aurka'
martxa feminista eta antimilitarista
11:00etan, Santurtziko partean (Irteera, 09:30ean Landakotik).

DURANGO dantzaldia
AIKOren 'Muga gainetik dantzan'
jaialdia. Sokadantza, eta ostean, dantza-poteoa.
13:00etan, Andra Marian.
Bazkari herrikoa, ostean, dantzaldia 14:30-22:00, Plateruenean.



guztia emango dutela adierazi dute. Beraiekin batera, Worth It berriztarak, Drop! eta Norkzer?! egongo dira gaztetxeko taula gainean. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira, eta sarrerak lau euroan salduko dira.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Aikoren Muga Gaietik Dantzan emanaldia, bihar, Durangon

DANTZAK | Egun osoko egitaraua antolatu du Aikok abenduaren 16rako. Muga Gaietik Dantzan ekimenak musika eta dantza uztartuko ditu, eta aurten, Aikotarrerez gainera, gonbidatu bereziak egongo dira. Iruñeko Jarauta 69 txaranga, Kiki Bordatxo eta bere taldea eta Bizkaiko Gaiteroak etorriko dira Durangora. Urtero egiten den jaialdi honek 200 lagun inguru biltzen ditu. Festa, 13:00etan hasi eta 22:00ak arte iraungo du.



ELORRIO kontzertua
Berrio-Otxoa abesbatza eta Asturiasko Coral de San Martin de Sotondrio abesbatzen kontzertua
20:00etan, Santa Ana kaperan.

ZORNOTZA jaia
Karroza eguna (70eko eta 80ko hamarkadetako musikagaz)
20:00etan, Luis Urrangoetxea kalean.

Abenduaren 17an

DURANGO kontzertua
Tabira musika banda,
Traña-Matienako Errota kultur etxean.

Abenduaren 15etik 17ra

BERRIZ tonbola
Berrizko tonbola solidarioa,
goizetan 10:00-14:00 eta arratsaldetan, 16:30-20:00, Caritasek trenbide ondoan duen lonjan.

Abenduaren 18an

DURANGO kontzertua
Bartolome Ertzillako ikasleen gabonetako kontzertuak, 18:00etan eta 19:30ean, Bartolome Ertzilla musika eskolan.

Abenduaren 19an

ZORNOTZA antzerkia
'Harriaren hiztegia'.
20:00etan, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 20an

DURANGO aurkezpen laburrak 'PechaKucha' aurkezpen laburrak. 20 irudi x 20 segundotan, 18:30ean Hitz liburu-denda zaharrean.

Abenduaren 22an

BERRIZ ikuskizuna
'Ilusioaren indarra' Hodei magoagaz, 18:00etan, Kultur Etxean.

ZORNOTZA kontzertua
Zubiaur musika eskolaren eskutik,
'Gabonetako kontzertua', 21:00etan, Zornotza aretoan.

ELORRIO emanaldia
'Black Mirror',
22:00etan, gaztetxean.

Abenduaren 14tik 22ra

MALLABIA erakusketa
Fernando Alonsoren argazkiak.
Astegunetan, 19:00-20:15.
Zapatu eta domeketan, 11:30-13:30, Kontzejuzarren.

Abenduaren 14tik 20ra

DURANGO merkatua
'Bidezko merkataritza' San Antonio ikastetxeko ikasleen eskutik.
Goizetan 11:30-13:15 eta arratsaldetan 16:30-17:30.

Abenduaren 28an

ELORRIO txapelketa
'II. futbolin txapelketa',
gaztetxean.

Abenduaren 29an

ELORRIO emanaldia
'Black Mirror',
22:00etan, gaztetxean.

Abenduaren 30ean

ELORRIO kontzertua
Sermonds eta Willis Drumond,
23:00etan, gaztetxean.

Urtarrilaren 2tik 5era

DURANGO tailerra
'Ahalduntze feministarako rap tailerrak La Furiagaz'.
10:00-14:00etan Andragunean.

DURANGALDEA deialdia
'Enpresa ideien deialdia' Gaztedi Durangaldearen eskutik.
Informazio gehiago: www.gaztedidurangaldea.eus.



STAR WARS
Durangon eta Zornotzan

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **La librería**
barikua 15: 18:00
domeka 17: 17:00

:: Durango
ZUGAZA

• **Star Wars:**
Los últimos Jedi
barikua 15: 19:00/22:00
zapatua 16: 16:30/19:30/22:30
domeka 17: 17:00/20:00
astelehena 18: 18:00/20:30
martitzena 19: 20:00
eguztzena 20: 20:00

• **Tierra Firme**
barikua 15: 22:00
zapatua 16: 19:30/22:30
domeka 17: 20:30
astelehena 18: 20:30/21:00
martitzena 19: 20:00
eguztzena 20: 20:00

• **Perfectos desconocidos**
barikua 15: 19:30/22:00
zapatua 16: 20:30/22:30
domeka 17: 18:30/20:30
astelehena 18: 18:30/21:00
martitzena 19: 20:00
eguztzena 20: 20:00

• **Se armó el Belen**
barikua 16: 19:30
zapatua 17: 16:30/18:30
domeka 18: 16:30/18:30

:: Elorrio
ARRIOLA

• **En realidad nunca estuviste aquí**
zapatua 16: 20:00
domeka 17: 20:00

:: Zornotza
ARETOA

• **Star Wars:**
los últimos Jedi
zapatua 16: 17:30/19:30/22:00
domeka 17: 16:30/20:00
astelehena 18: 20:15

• **Mañana**
astelehena 18: 17:30/20:30

“BECeko buruz burukoan bertsoan egitea eta asmatzea terriblea izan behar da, nire motibazio nagusia hor dago”

Faborito nagusiak Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus direla uste du Igor Elortzak. Hala ere, txapela janzteko, 2013ko Txapelketa Nagusian baino aukera zabalagoa ikusten du bertsolari durangarrak. Behetik goranzko ibilbideagaz iritsiko da domekan BECen jokatu den final handira.



Lehior Elorriaga

Igor Elortza Aranoa
Bertsolaria

Durango | 1975

Txapelketa hasieran, protagonista izan dira belaunaldi gazteagoak, baina finalean ez da ia aurpegi berririk egongo oholza gainean.

Mila ertz interesgarri ditu gai honetarako. Kontua da BECen guztiok gura dugula egotea, eta gure belaunaldia, eta datuek diote hau, sendoa dela: aurtengoa izango da inoizko finalik zaharrena, eta inoizko finalik gazteena 2001ekoa izan zen; eta orduko belaunaldi zentrala ere geurea izan zen. Horrek esan gura du gazte sartu ginela, eta txapelketa gugaz batera zahartu dela.

Hala ere, BECekoa ez da egungo plazaren isla. Plazan aldaketa ematen ari da, hurrengo belaunaldia ona delako, beste ikuspegi bat ematen dutelako, eta, normala den bezala, jendeak ere beste ahots batzuk gura dituelako plazan.

Esperientzia hori, gainera, baliagarria izango da 13.000 zaleren aurrean abesteko.

Final batera inor ez da ohitzen, eta 13.000 lagunengatik aurrean abestera ere ez. Niri hau lau bider gertatu zait. Maialen Lujanbiori, adibidez, 97tik sei bider. Sei egun, hogeitun urtean! Baina, “berme” bat izan daiteke aurretik egon izana. Elkar babestuko dugu, badugulako konfiantza. Orain dela lau urte igarri zen, eta horrek lagundu egin zuen final ona izaten.

Gizartean bezala, sare sozialek pisua hartu dute. Eragiten dizute?

Kuriosoa da, Gara eta Berriako elkarrizketetan ere berdina galdetu zidaten. Eragiten du, baina nik ez dut hartzen negatibotzat. Garaiekin doan gauza bat da. Txapelketak duen oihartzuna duenez, gure buruari tranpak egiten dizkiogu. Eskandalizatzen gara apustu etxe batek apustuak egiten dituelako, edo iritzi gordinen bat dagoelako, baina betidanik egin dira porrak elkarte, familia edo bertso-eskolan, eta tabernetan beti egin da berba bertsolariak egindako lanari buruz. Aukera ematen dizute *feedback* hori ere jasotzeko, edo horien aurrean zure iritzia partekatzeko.

Ezer gehitzekorik?

Beñat, Unai, Abarkas, Manu eta Mireni bide hau konpartitzearen plazerra eta esker ona agertzea gura nuke.

BTN • ARITZ MALDONADO

Txapelketa Nagusiko txapela janzteko asmo irmoagaz taularatuko da domekan BECen Igor Elortza. Aurrez hiru bider egona da finalean.

Ze sentsazioz iristen zara domekako finalera?

Prest eta sentsazio onagaz. Final bat beti da egun berezi bat, bere ilusio eta erantzukizun guztiagaz. Urte hasieratik, gehiago edo gutxiago, finalaren eguna buruan eduki dugu; irailetik aurrera gehiago, eta finala buruan bai, baina tartean beste kezka batzuk ere bai, ze, azken batean, finalera iritsi egin behar da, eta hori gero eta gaitzagoa da.

Gorputzaldiz ondo sentitzen naiz, sentsazioa dudalako txapelketan zehar behetik gora etorri naizela. Bastidako saiora kezka puntu horregaz joan nintzen, lau urtez txapelketan norbere burua ikusi barik, ariketa eta gai kontestuan baldintza neutrotan, eta, gainera, lehia kontestuan, baina, esango nuke hainbestean joan zela. Donibane Lohizuneko finalerdirako indartsuago nengoan, bertsoarako ondo, puntuan, nengoela jakitun, eta txapelketara begira ere Bastidan baino grina handiagoagaz. Aste hauetan, pre-

sioa mantentzeko asmoa hor dago. **Izan ere, presio puntu hori mantentze aldera, prestaketa aldatu duzu, ezta?** Horrela esanda... Kirolariek ere esaten dute hau ez dela matematika, ez dagoela jakiterik. Aurreko txapelketan konturatu nintzen azkeneko fasera nekatuta iritsi nintzela. Irailaren erdira arte ez naiz hasi prestaketa zehatzagaz, arrisku batzuk hartzearen jakitun, baina konfiantza horregaz. Grina puntu hori mantentzen dut, eta nekatuta ez egotearen sentsazioa dut, beraz, uste dut ongi irten dela. **Laugarren finala duzu hau, eta zazpi-garren Txapelketa Nagusia. Lehiarako grina, nola mantentzen da?**

Hori da beste galdera, eta noiz arte? Aurten bi gara zazpi Txapelketa Nagusitan parte hartu dugunak,

“**Gaitza da lehiarako grina mantentzea; energia, ardura eta erantzukizun handia eskatzen du**”

Jon Maia eta biok. Sei baino gehiago ez dituzte askok egiten, Andoni Egañak berak zazpi egin zituen, lau txapel irabazita, baina ezberdina da, grina eta motibazio aldetik.

Gaitza da. Energia asko eskatzen du fisikoki, eta ardura eta erantzukizun aldetik ere asko aldatzen dira gauzak; ez da berdina 25 urte edukitzea, edo 42. Kideak ere beharrezkoak dira, saiakera intimo horiek konpartitzeko lagunarte bat behar duzu, eta orain konturatzen zara, zuri laguntzeko, bai lagunak direlako bai bertsozaleak direlako, beraiek ere denbora hori antolatu behar izan dutela. Aurten nik igarri dut, jende honek nigatik hartu du denbora hori, eta nik ezin dut etsi, ezin dut gaia gustatzen ez zaidalako alferrik utzi, hor ere ahalegin totala egin behar dut. Baina egia da gero eta gehiago kostatzen dela.

Amesten duzu Txapelketa Nagusiko txapela janztea?

Amestu, zentzu horretan, gehiago amesten nuen garai batean. Txapelketa Nagusian ibilbide gorabeheratsua eduki dut. Orain arteko txapelketarik onena nire aldetik, eta sailkapenari begiratu ta ere, 2013koa izan zen. Niretzat garrantzitsua izan zen, aukera

bat irabazi nuen, eta aukera bat eman zidan txapelketak berak. Aurtengo helburuetan, zoratu barrik, lorgarria dela uste dut. Aurrekoan buruz burukora heltzearen inbidia latzagaz geratu nintzen. BECeko buruz burukoan bertsoan egitea eta asmatzea terriblea izan behar da. Hor ditugu Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus azkeneko bi txapeldunak, eta eurak dira faborito nagusiak. Baina iruditzen zait orain duela lau urte baino aukera zabalagoa dagoela bikote hori aldatzeko. Baina hor sartzeko, ez dira bi horiek bakarrik gaintu behar. Ikusiko dugu zer geratzen den, baina aurten bat baino gehiago izango gara Amets eta Maialeni hori borrokatzen joango garenak.

“**BECekoa ez da plazan ematen ari den belaunaldi aldaketaren isla, BECen guztiok egotea gura dugu-eta**”

“Ideiak burura ekartzea ez da horren zaila, ideia horregaz gaia jartzea da zailena”

Bertsolari Txapelketa Nagusiko gai-jartzaile taldea osatzen duten 18 lagunetako bi dira Maite Berriozabal Berrizbeitia (Berriz, 1987) eta Amaia Ugalde Begoña (Elorrio, 1985); abenduaren 15ean, finala aurkeztuko du Berriozabalek

BERTSOLARITZA • AITZIBER BASAURI
Bertsolari Txapelketa Nagusian badu eskarmentua Maite Berriozabalek gai-jartzaile lez. Hala ere, aurtan, final nagusian estreina-koz izango da. Amaia Ugaldek, berriz, aurtan du lehenengo aldian Txapelketa Nagusiko gai-jartzaile taldean. Iaz, Bizkaikoan aritu zen, Durangaldeko taldean ibili ostean. Martxoan hasi ziren batzarrekin, eta “zentzu guztietan egun oso intentsoak” direla aitortu dute.

Ia 15.000 pertsonak beteko dute BECa izango duzu aurrez aurre zapatuan. Nola ikusten duzu zure burua paper horretan, Maite?

Maite Berriozabal: Oraindik ez dut ikusten (barrez). Uste dut hunkigarria izango dela. Lau laguneko taldea izango gara, eta nik zaleen artean bertsolariekin oholtzarako bidea egingo dut. Oso hunkigarria, ikaragarria, izan behar du, eta momentu hori disfrutatzeke esan didate. Ez dakit gai izango naizen. Lana ondo betetzea, disfrutatzea, oreka mantentzea eta domekan ondo lo egiteko motibo asko izatea, horixe dut helburu.

Zein da gai-jartzailearen lana? Bertsolaria mugara eramatea?

Amaia Ugalde: Kantagarriak izan



Berbaro euskara elkartean lan egiten dute Maite Berriozabalek eta Amaia Ugaldek.

daitezkeen gaiak aukeratzea da gure lana, saio interesgarria irten dadin. Oreka mantentzea da helburua eta ez estutasunean jartzea, bertsolariak ahalik eta lanik onena egin dezan. Erronka bat proposatzen zaie. Maila handiko bertsolariak dira eta edozein trabari aurre egiteko gai. Gu laguntzeko gaude. Bertsolariak oholtzan dauden une horretan eroso egotea oso inportantea da, zaindu egin behar dira, ezer behar duten adi egon.

Xehetasun guztiei begira zaudete?

M.B.: Guraso rolaren estilokoa da gurea. Bitartekaritza lana egiten dugu askotan. Antolakuntzan, bertsolariekin, gure burua kudeatzen eta kontrolatzen lan egiten dugu. Gaiak patxadaz irakurri behar ditugu eta beste edozeri adi egon. Bertsolariei ere bai. Ikusleak badu halako fantasia bat, gozamen absolutu batean bizi garela bertsolariak mugara eramaten. Ez da horrela. Bertsolariak eurak ere ez

dira errazak, ez doaz gauza erraz bila. Autoexijenteak dira eta mailako gaiak jartzen saiatzen gara.

Nola aukeratu dira gaiak?

A.U.: Sorkuntza prozesu bat dago atzean. Aukeratzea zaila da —gai sozialak, gaurkoak, salaketarako bidea ematen dutenak...— baina are zailagoa da gaiok nola formulatu zehaztea, beti ere oreka mantenduz. Dena den, gai ona edo txarra, kontu subjektiboa da

M.B.: Dena baino errazago ikusten

da gure lana kanpotik, eta ulertzekoa da. Ideiak burura ekartzea ez da horren zaila, ideia horregaz gaia jartzea da zailena. Nola ekarri Durangoko Azoka edo Kataluniako prozesua bertsoara, nola abestu, zeinen ahotan... Ideia hori moldatu behar dugu, kantagarri bihurtu. Gainera, gaiak orekatu behar dira, edukiz eta formaz, beste bertsokideen ofizioekiko.

Lan zaila duzue...

M.B.: Edozein txapelketa edo sari-ketatan bertsolariak bere burua horrela ikusgai jartzen duen neurrian, gure buruagaz exijenteak izan behar dugu geuk ere, pertsona horri ahalik eta saiorik onena egitea ahalbidetzeko. Plazan bestelako lizentzia batzuk hartu daitezke, baina txapelketan egiturak erabakita daude eta denei aukera berdina eman gura dizkiegu.

Faboritorik baduzue?

M.B.: Badut, baina ez dut esango. Baina, gai-jartzaileak eta txapelketaren egiturak lagundu dit ikusten norbaitek merezi izan duenean aitortu zaiola.

A.U.: Beti dago bat. Baina, jabe naiz inork hiru perla botaz gero litekeena dela bere alde jartzea.

Zenbatek eskatu dizuzue sarrera?

A.U.: Ufffff..

M.B.: Egon da denbora erosteko. Finala oso egun polita da, joanez gero asko gozatuko duzuna, baina aurretik saio mordoa egon dira. Txapelketaren oihartzun mediatico eta soziala garrantzitsua da, indartu behar dena, baina ahaztu gabe hori posible dela urtean zehar egiten diren plazei esker.

2013ko Txapelketa Nagusian egindakoa hobetuta, “gustura” ikusiko du domekako finala Miren Amurizak

BECEko finalerako atarian geratu da Miren Amuriza, “gehiago egiteko gogoz, baina egindakoagaz ere gustura”. Finalean oholtzan egon ez arren, bertara iristeko aukerak izatea berri oso pozgarria da bertsolari berriztarrentzat.



Finala atzeguardiatik gozatuko du Miren Amurizak.

Pozik dago Miren Amuriza Txapelketa Nagusian eginiko ibilbideagaz, BECEko finalaren atarian geratu behar izan duen arren. Batez ere, Zallako kanporaketan eginiko saioagaz gozatu zuen. Gainera, aurreko Txapelketa Nagusiagaz alderatuz gero, “dezente gusturago”, geratu da berriztarra. Bestelako emozioak ere piztu dizkio lehiak, onak eta txarrak. Txapelketako prestaketan kide izan duen Miren Artetxe (Oihana Bartragaz batera) lehiakide ere izan du, Durangoko finalaurrekoan. “Itzela da tentsiozko une horietan konfiantzazkoa den norbait alboan edukitzea kantatzeko”, adierazi du. Alderantziz bizitzea ere tokatuko zaio, baina,

entrenamendu kide izan duen Igor Elortzagaz domekako finalean sufrirituz. “Oholtzan lagundu ezin, eta guri orain atzeguardian egotea tokatzen zaigu”, esan du.

“Inbidia, baina drama barik”

Amurizak Txapelketa Nagusiko irudirik zirrargarrienetako bat utzi zuen Iruñeko kanporaketan. Sudurretik odolatan hasi zen bertsoan zela. Txapelketa baldintzatu arren [finalera sailkatzeko aukerekin taularatu zen berriztarra], irakasgaia izan dela nabarmendu du Amurizak. “Domekarako inbidiagaz nago, noski, baina ez dut drama bat egin gura horregaz. Are gehiago, ikasbide oso garrantzitsua daramat nigan” azaldu du berriztarra. Bertsolariaren berbetan, “Kokotetik gora oso aste intentsoak dira txapelketakoak, eta gorputza ere zaindu behar dela konturatu naiz”. Bestalde, Txapelketa Nagusia “kokatzeko” ere balio izan dio gertaerak. “Jokoa hemen dago, eta ez han”.

Abenduaren 5etik 9ra izango da 53. Durangoko Azoka, bost egunekoa berriz

Argizaiola sariaren ordezkotzat Sormen Beka deialdia egingo da lehenbizikoz datorren urteko Azokan; ikasle eguna indartzea da beste erronketako bat, datorren edizioari begira



Zortzi gune izan ditu 52. Durangoko Azokak, tartean, argazkiko Irudienea. Bertako eskaintza egonkortu egin dela uste dute antolatzaileek.

AZOKA • I.G./A.M.

2018ko abenduaren 5etik 9ra izango da 53. Durangoko Azoka, eta bost egunekoa izango da berriz. Hainbat erronka ditu Azokak datorren urtera begira. Ikasle Eguna bigarren egunean mantendu, eta indartzeko apustua egingo du. Izan ere, aurtengo edizioa egun jakintsuena izan da. "Azokarentzat estrategikoa da Ikasle Eguna mantentzea, transmisioan duen eraginagatik", azaldu duten balorazioa egiterakoan.

52. edizio honetan, 110.000 bisitari baino gehiago joan dira Lan-

dako Gunera. Datu ekonomikoei erreparatuta, aurtengo edizioak 7,2 milioi euroko ekarpena egin du. "Euskal kulturaren inbertitzeak merezi duela erakusten du", adierazi dute. Salmentei dagokienez, argitaletxe, diskoetxe eta gainontzeko eragileek diotenez, asko saldu da. "Kasu batzuetan edizioak agortu egin dira, eta badira aurreikuspenak gaindituta bueltatu diren erakusketariak", esan dute. 22. Euskal Dendak iaz baino 8.000 bisita gehiago izan ditu. Guztira, 26.720 bisitari izan ditu artisauen azokak. "Inoiz ez genuen imajina-

tu hainbeste bisitari izango genuenik, eta, noski, horrelako harrera salmentan islatu da. Pozik daude artisauak", azpimarratu zuen Bernat Vidal Arbasoko presidentek.

20 irudi, 20 segundutan

Gerediaga elkarteak Pechakucha saioa antolatu du abenduaren 20rako. Jatorri japoniarreko formatua du saio honek, eta berritzailea da Durangaldean. Bertako sortzaile gazteek parte hartuko dute; tartean, Joseba Attardek, Eñaut Aiarzagunenak eta Elene Carretok. 18:30ean hasiko da.



26.720 bisitari izan ditu Euskal Dendak.



Berri Txarrak taldeak txiki utzi zuen Ahotseneako karpa zapatu goizean.

Otsailaren 24an egingo da 40 Minutu Rock elkartasun jaialdia

MUSIKA • A.M.

Beste urte batez milaka lagun batuko dira Landako Gunean euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko. Otsailaren 24an 40 Minutu Rock jaialdia egingo da, *Itzala argitzen!* lelopean. 10:30ean zabalduko dituzte ateak, eta hamaika talde arituko dira bertan ordutik aurrera. Berriki Plateruena bete duten Gatibu (birritan) eta Glaukoma taldeek eskainiko dute kontzertua. Denetariko musika gustuei egiten die lekua elkartasunezko musika jaialdiak. Horrela, Estricalla, Des-Kontrol, Su Ta Gar eta Revolva Permanent taldeek doinu gogorrenen zaileak asetuko dituzte. Dantzara-

Aurten Plateruena bete duten Gatibu eta Glaukoma taldeek zaletu ugari erakarriko dute Landako Gunera

Durangaldeko hiru talde arituko dira 40 Minutu Rock elkartasun jaialdian: Sermond's, Gora Etorri eta Dj Alus

ko aukera, osterara, Los Zopilotes Txirriaos eta Tximeleta taldeen eskutik etorriko da. Sermond's elorriarrek beraien stoner pisutsuagaz eskualdea ordezkatzeko dute taula gainean. Emakumezkoak ere egongo dira Landako Gunean oholtza nagusietan: Las Tea Party bilbotarrek kontzertu berezia eskainiko dute Aneguria, La Basu eta Mad Muasel repeatzaileekin; Tremenda Jauria madrildarrek ere dantzari jarriko dute Landako Gunea, hauek, reggaeton aldarrikatzaileagaz. Barruko karpan, berriz, Gora Etorri, Elepunto eta Dj Alus arituko dira musika jartzen. Sarre-
rak 16 euroan salduko dira, aurrez, edo 19 an, txarteldegian.

Geure Durangaldea

Garazi
Arrizabalaga
Cabrerizo
Durangoko museoa



Sormena, zertarako?

Sormenean murgilduta ibili gara azken egun hauetan. Durangoko Liburu eta Disko Azokak argi utzi digu sormenaren lurraldea garela. Denok harrotasunez hartu ditugu hitz horiek eta kultura indartu gura izan dugu, bere parte sentituz. Musika, antzerkia, argazkigintza, literatura, filosofia eta halako hitzez bete dugu gure ahoa egun hauetan.

Errealitatea bestelakoa da. Izan ere, sormenari ematen zaion benetako garrantzia beste bat da. Ikastetxeetako hezkuntzatik, hau da oinarritik, hasita. Azken urteetan sormenaren eta kritikaren kontrako apustua egin da hezkuntzako curriculumetan. Artearen Historia, plastika, musika eta filosofia ikasgaiak, besteak beste, hautazkoak bihurtu dira. Zertarako balio dute, ba? Ez dugu denborarik eman beharkekoa emateko, eta horrelako gaiak denbora galtzea dira! Horrelako astakeriak defendatu dira. Baina zer da pertsona bat sormenik eta kritikarik gabe? Pertsona huts bat. Izan ere, sormena da gizakiaren naturaren, bere adimenaren eta bere zirraren funtsezko ezaugarria. Horrez gain autokritika egiteko aukera ematen du, nahi duguna, pentsatzen duguna, sentitzen duguna azaltzeko aukera. Baina honen beldur dira batzuk. Pertsona guztiok gure sormen ahalmena erabiliko bagenu, gure kritika zorrotzarekin hartuko bagenu gure erabakiak beste mota bateko gizartea eratuko genukeelako. Sormena lantzea garrantzitsua da. Ikusten dugu eskoletan ez dela horrelakorik egiten, beraz, ez dezagun aukerarik galdu; bultzatu artea, kultura, filosofia, musika ... Azokara joanez, musika eginez, antzetzuz, museoak bisitatuz. Gure buruak sormenez elikatuz.

Gu (ez gaude bakarrik!)

Borobil Antzerki Taldea

Abenduaren 17a, 18:00etan

FAMILIENTZAKO ANTZERKIA

San Agustin KULTUR GUNEA

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021 - sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jateitxea@plateruena.net

Abenduak 16 - 14:00etan
AIKO BAZKARI ERROMERIA
Erromeria

Abenduak 18-20
SOINU TEKNIKARI IKASTAROA
Ikastaroa

Abenduak 23 - 23:30ean
ATLANTIQUE GORGUI NDIAYE
Kontzertua



PechaKucha
20 X 20
IRUDI SEGUNDU

AURKEZPEN
LABURRAK



JOSEBA ATTARD
OLABE PROJECT

EÑAUT AIARTZAGUENA
@IRRIBARREZ

JULEN FERNANDEZ
JON LETE
BIZIKLETARTE

ELENE CARRETO
DANTZERTI

IRATXE MEDIAVILLA
ARGI FILMA

PECHA KUCHA

2017
DURANGO



ABENDUAK 20 18:30 HITZ LIBURUDENDA ZAHARREAN

Elorrioko Parra Tabernak denboraldiko lehen garaipena oparitu gura die zaleei

Bigarren B Mailan jokatzeko esperientzia polita bezain gogorra izaten ari zaie. Azkeneko daude sailkapenean. Garaipen bat talderako pizgarria eta zaleentzat poztasuna litzateke



Elorrioko Parra Taberna taldearen familia argazkia. CHRISTIAN VALDIVIESO

ARETO FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO
Elorrioko Parra Tabernak bere historiako lehenengo denboraldia du Bigarren B Mailan. Iaz Bilbok maila horretan libre utzitako lekua baliatzea erabaki zuten, erronka berrien bila zebiltzalako. Eta desafioa itzela dela konturatu dira. Liga erdira heltzear, azkenengo daude, garaipen barik eta hiru puntugaz. Goliath ziren eta David bihurtu dira. Bazekiten hori gertatuko zena, baina gauza bat da jakitea eta beste bat sentitzea. Porrotak kudeatzen eta frustrazioei aurre egiten ikasi behar izan dute. Zapatuan, 16:00etan, lehen itzuliko azken partidua jokatu dute Elorrioko, sailkapenaren behealdean dabilen talde baten kontra, eta 2018a indarberrituta hasteko behar duten abiapuntua izan daiteke.

“Taktikari eta estrategiari dagokienez, alde handia dago maila berrian. Hori berdintzea gaitza da, lan handia egin beharra dago eta gure jarrera ez da egokiena izan batzuetan”, onartu du Iker Saenz de la Cuesta entrenatzaileak. “Kantxatik kanpora talde batua gara, giro oso ona dugu, baina barruan, jokoan, kosta egin zaigu. Oso lehiakorrak gara eta, esango nuke, horrek mesede baino kalte egin duten erabakiak hartzeraren eraman dituela jokalariek batzuk partiduetan. Uste dut arazo hori konpondu

dugula, baina bidean puntuak utzi ditugu”, gehitu du.
Lehenengo garaipena gertu izan dute partidu baten baino gehiagotan, baina azken unean ihes egin die. “Beharbada hiru puntuak gertu ikusteak apur bat belurtu egingo gintuen”, adierazi du Saenz de la Cuesta. Lesioekin ere ez dute zortirik izan. Lesio dezente izan dituzte eta, ondorioz, partiduetan aldaketak egiteko aukera gutxi. “Hala ere, aurrekari horiek garaipena ez dagoela hain urrutira erakusten digute. Izaera lehiakorra dugu. Sailkapenak islatzen duena ez dela gura benetako maila uste dut”, gehitu du.

Lehen garaipenaren bila
Asteburuan Zaragozako Nuestra Señora del Portal taldeak bisitatu du Elorrioko kiroldegia. Hauek

“Izaera lehiakorra dugu. Sailkapenak islatzen duena ez dela gure taldearen benetako maila uste dugu”

“Hirugarren Mailara igotzea ametsa izan zen; han urteetan egotea ere bai; orain beste amets baten borrokan gaude”

ere sailkapenean estu dabilta eta azken hirugarren daude. Lesioen *handicap* eta guzti, elorriarrak eginahalak egiteko prest daude lehenengo garaipena eskuratzeko. “Sarritan garaipen batek emaitza boladak aldatzen ditu. Iaz Santurtzik bost bat puntu zeramatzan Gabonetan, eta gero mailari eustea lortu zuen. Beraz, ez dugu hain erraz etsiko. Hirugarren Mailara heltzea ametsa izan zen, han hainbeste urtez mantentzea ere bai, eta orain beste amets batengatik borrokan gabilta. Mailari eustea lortuko dugun? Ez dakit. Gure helburua pausorik pauso gure maila hobetzea, irudi ona eskaintzea eta Elorrioko zaleei kalitatezko areto-futbola eskaintzea dira”, esan du.

500 bazkide
Elorrioko zaleek aurten taldeari erakutsi dioten babes eskertzeko modua litzateke garaipena. Lehenengo bazkide kanpaina abiatu dute gastuei (joan-etorriak, epaiak...) aurre egiteko, 300era heltzea jarri zuten helburutzat eta 500 lortu dituzte. “Herri txiki batean eta areto-futbol talde batean hainbeste bazkide lortzea sekulako sorpresa pozgarria izan da”, dio Saenz de la Cuesta.

Bazkideekin batera babesle berriak lortu dituzte eta denei esker oneko daude.

“Garaipena heltzear dagoela sentitzen dugu; gertu izan dugu”



UNAI ARREGI MAÑARIKUA

Elorri, 1996

Futboleant eman zituen bere lehenengo pausoak eta gazte mailan hasi zen areto-futboleant. 21 urteagaz, etorkizuneko taldeko zutabeetakoa da.

Uste zenutena baino erronka gaitzagoa izaten ari da?

Esperientzia falta arazo bat da. Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara alde handia dago. Aurkariek falta normal bat gol bilakatzen dute eta horri buelta ematea kosta egiten da.

Emaitzek taldearen animoari erasaten diote?

Momentu onak eta txarrak, bietarik izan dugu. Txarretan talde izaera handiagoa erakutsi behar dugula uste dut. Beharbada partiduetako une batzuetan indibidualismoa nagusitu da taldearen gainetik. Hobetu beharreko jarrera batzuk badaude. Elkartasuna landu behar dugu. Iker entrenatzaileak ere lehenengo egunetik hori hobetu gura zuela esan zigun.

Asteburuan sailkapenean hain urrun ez dagoen talde baten kontra jokatu duzue. Garaipena opari polita litzateke klubeko 500 bazkideentzat.

Bai horixe. Garaipena gertu egon daiteke. Diozun moduan, Zaragozako taldea ez dago sailkapenean gugandik oso aparte. Guk dakiguna ateratzen badugu aukerak izan ditzakegu. Garaipena heltzear dagoela sentitzen dugu. Une batzuetan gertu izan dugu, gainera. Detailtxo batzuk hobetuz gero, hortxe egon daiteke.

Garaipen bat taldeak behar duen pizgarria izan daiteke?

Bai, izan daiteke. Sarritan garaipen batek egoerak eta dinamika aldatzen ditu. Emaitza on baten ostean beste batzuk heldu daitezke. Gu ilusio eta motibazio horregaz entrenatzen gara astero-astero.

“Garaipena Gabonetako oparirik onena litzateke”



ARKAITZ LOPEZ BERNALTE

Elorri, 1991

Elorrioko Buskantza klubean urterik gehien daramatzen jokalarietakoa da. Beteranoa, bere gatzetasunean. Garaipen batek beren aukeretan sinesteko optimismoa eskainiko liekeela uste du.

Uste zenutena baino erronka gaitzagoa izaten ari da?

Bagenekien lana lepo egin behar genuela eta lan handia egin dugu taldearen maila hobetzeko. Hala ere, espero genuena baino erronka handiagoa da. Aurkariek estrategia oso landuta dute. Gu ere apurka-apurka hobetzen ari gara.

Garaipenik ez lortzeak antsietatea eragiten du jokalarientzat?

Ezetz uste dut. Argi geneukan oso denboraldi konplikatu izango zena eta talde batua izan behar ginena. Hori lortu dugula uste dut. Giro ona dugu taldeakideen artean, ondo konpontzen gara eta hori funtsezkoa da aurrera egiteko.

Talde batua zaretela diozu. Kantxa barruan elkartasun hori falta izan da une batzuetan?

Egia da batzuetan urduritasunak sortzen direla irabazi egin gura dugulako. Baina kantxan gertatzen dena han geratzen da. Azken batean, lagunak gara.

Asterik astera ilusioari eustea kosta egiten da?

Ilusionaturik gaudela uste dut. Zaragozan eta antzerako tokietan jokatzeko aukera dugu eta esperientzia horiek aberasgarriak dira denontzat.

Asteburuan Olentzero helduko ote da Elorriora?

Garaipena lortzea Gabonetako oparirik onena litzateke. Energia eta motibazio handia litzateke. Taldeak bere aukeretan gehiago sinesteko balioko lukeela uste dut. Zaleek ere merzei dute.

Paco Buyo eta Pavon jokalaria etorriko dira Extremeñoen kontrako ongintzazko partidura

Extremeñoeko eta Real Madrileko beteranoek elkarren kontra jokatuko dute bihar Tabira futbol-zelaiari



Extremeño futbol taldean aritu ziren beteren familia argazkia iazko urte amaieran jokatu zuten partiduan.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Orain bost urte desagertu zen Extremeño futbol taldeko beteranoek urtero batzen dira lagunarteko partidu bat jokatuzko. Aurtengo hitzordua zapatu honetan jarri dute eta berezia izango da. Juanito Maravilla Fundazioaren bidez Real Madrileko beteranoek osatutako talde baten kontra jokatuko dute Tabiran, eta batutako diru guztia Fundazioaren eta eskualdeko hainbat elkarteren artean banatuko dute: Rio de Oro, Geu Be eta Angelman Sindromea elkarten artean, hain zuzen.

Paco Buyo, Edwin Congo, Francisco Pavon eta Jorge López Marcos 'Tote' dira Fundazioko taldea ordez-

katuz Durangora etorriko diren jokalarietako batzuk.

Zapatuan 12:30ean hasiko den partidurako sarrerak Hiper Simply supermerkatuan eta Durangoko kiroldegi bietan eskuratu daitezke lau euroren truke. Egunean bertan ere salgai jarriko dituzte. "1.700 sarrera daude, festa bat izango da eta Tabira bete egin gura dugu", adierazi du Jose Miguel 'Txemi' Lopez ekimeneko sustatzaileetako batek.

Kamiseten zozketak

Partiduen atsedendian askotariko zozketak egingo dituzte: Ander Iturraspe eta Asier Illarramendi Athletic eta Realeko jokalarien kamisetak, Real Madrileko lehen

taldeko jokalariek sinatutako kamiseta eta baloia, Tabirako saskibalo taldeko jantziak eta askotariko enpresek eta laguntzaileek emandako produktuekin osatutako otzarak, besteak beste.

Real Madrileko lehen taldeko jokalariek sinatutako kamiseta eta baloia zotz egingo dituzte partiduko atsedendian

Geu Be eta Angelman Sindromea elkartereko gazteak Tabiran izango dira, eta, partidua hasi aurretik, Fundazioak emandako opariak jasoko dituzte.

Jaenetik Durangaldera

Lopezek Jaenen —Fuensantan— igaro izan ditu udako oporrak, eta hango beteren taldekoekin jokatuko du. Haien bidez, Real Madrileko beteren kontrako partiduan parte hartzeko aukera izan zuen behin, eta orduan otu zitzaion antzerako zerbait Durangon antolatzeke idea. Jende askoren arteko elkarlanari esker aurrera irtengo den ekimena dela dio, eta denentzat "konpromisoa eta lanerako prestutasuna" aurkitu dituela azaldu du. Hainbat hile daramatzate babesle bila eta errifak saltzen, eta dagoeneko 9.000 euro inguru lortu dituzte elkarten artean banatzeko.

Bolada onari esker, Amorebietak jaitziera postuak bezain gertu ditu goerakoak

FUTBOLA • J.D.

Urriaren erdian nork esan behar zion Amorebieta futbol taldeari hilabete bi geroago jaitziera postutik kanpora eta gora begiratzeko aukerakin egongo zela. Joseba Etxeberriak gidatutako taldeak eskas hasi zuen denboraldia, eta aurreneko hamar jardunaldien ostean sailkapeneko zuloan zegoen. Baina, harrezkero, bederatzigarren partidu galdu barik kateatu ditu —27 puntutik 19 batuta— eta une honetan sailkapenaren erdian dago, igoera postua zein jaitziera promoviozko zazpi puntura dituela. Domekan, bolada onagaz jarraitzeko aukera ona du, Caudal Deportivo azken sailkatuaren kontra neurtuko ditu-eta indarrak.

Kulturala B eta Zorrontzako igoera postuan, Bigarren Erregionalean

FUTBOLA • J.D.

Bizkaiko Bigarren Erregionalean denboraldi bikaina osatzen ari dira Durangoko Kulturala B eta Zorrontzako Zorrontzako taldea. Talde biak igoera postuan daude, 24na puntugaz. Kulturalak partidu bi bakarrik galdu ditu orain arte, eta bat Zorrontzakoren kontrako derbian izan zen: 2-3. Zorrontzako taldea indartsu dabil etxean, eta Zorrontzan jokatutako bost partiduak irabazi ditu.

Asteko kirolaria



JON MUNITXA ARRINDA

Abadiño, 1991

“Iaz baino hobeto nabil aurten; pauso bat aurrera eman dut eta hori zen helburua”

Hurrengo asteburu bietan Munduko Kopako laster bi lehiatuko ditu ziklo-krosean

erakusgarri dira Euskal Herriko ziklo kros zirkuituan lortzen ari den emaitzak. Esaterako, garaipen eta podium bana lortu zituen joan zen asteburuan lasterketa bitan 23 urtez azpiko mailan.

Ametzagan irabazle eta Igorren hirugarren. Badago gehiago eskatzerik?

Ametzagako lasterketan, behintzat, ez. Hotz egin zuen, elurra zegoen eta, normalean, baldintza

horietan ez naiz ondo moldatzen, baina espero baino hobeto aritu nintzen. Aurten hotzak ez dit erasaten, ez dakit zergatik. Igorren, aldiz, ez nintzen eskaintakoagaz erabat gustura geratu. Hobeto aritzeko esperantza nuen.

Zeintzuk dira hurrengo hitzorduak?

Asteburu honetan eta hurrengoan Munduko Kopako lasterketa bana lehiatuko dut Belgikan. Ea zelan doazen.

Zer helburugaz zoaz?

Iaz erori egin nintzen eta eskuan min hartu nuen. Badakit dena elurtuta egongo dena, beraz lehengo helburua ez erortzea da. Ondoren, 30 onenen barruan sartuz gero oso pozik nengoke.

Zein izango da Euskal Herriko zure hurrengo hitzordua?

Euskadiko txapelketa Izarran [Araba]. Ondoren, urtarrilean, Abadiñoeko proba. Etxekoa. Berez

pertsona urduria naiz eta etxean oraindino nerbiozago jartzen naiz. Orain arte ez dut neurerik eman Abadiñoan eta lasterketa on bat egitea gustatuko litzaidake.

Pozik zaude orain arteko errendimenduagaz?

Bai, oso pozik. Iaz baino maila hobea ematen nabil aurten. Pauso bat aurrera eman dut eta hori zen helburua. Urtarrilean Espainiako ziklo kros txapelketaren txanda izango da. Orain urte bi laugarren amaitu nuen eta iaz ezin izan nuen parte hartu Belgikako erorketarengatik. Podiuma dut helburu, baina neurea emanez gero irabazi dezakedala uste dut. Egia esanda, gogotsu nago.

Aurten bere errendimenduan pauso bat aurrera eman du Jon Munitxak (Eiser-Hirumet). Horrela sentitzen du berak eta horren

Zaldibarko Olazarmendi taldeak bikoiztu egin du gimnasta kopurua urtebete

Durungaldean gimnasia erritmikoko ikuskizun bi izango dira asteburuan. Zapatuan, Durangon, Uztai taldeak antolatuta eta domekan, Berrizen, Olazarmendik antolatuta.



Zaldibarko Olazarmendi gimnasia erritmikoko taldeko kideak

GIMNASIA ERRITMIKOA • M. Z.

Gimnasia erritmikoa urtez urte indartzen dabilen kirola da. Horren adibide argi bat Zaldibarren ikusi daiteke. 2015ean Olazarmendi kluba sortu zuten. 2016rako 24 neskatoren zebiltzan gimnasia erritmikoko taldean, eta aurten, berriz, 42. “Zaldibarren kirola eta kultura indartzeko izugarritziko lana egi-

ten da, eta gimnasia erritmikoko taldekoak ere horretan gabiltza”, adierazi du Amaia Garcia Olazarmendiko zuzendaritzako kideak.

Taldea indartzeko hainbat ekintza egiten dituzte, eta horietako bat domeka honetan izango dute. Olazar frontoian, taldeko 42 neskatok eta ekimenera gonbidatutako beste klub batzuetako

kideek ikuskizuna eskainiko dute. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, domekako espektakulua 12:00etan hasiko da, eta ahalik eta herritarrik gehien bertaratzea dute helburu.

“Olazarmendik lan handia egiten du taldea sustatzeko, eta herrian pertsona askok gimnasia erritmikoren aldeko apustua

egin dutela jakitea guretzat oso pozgarria da”, adierazi du zuzendaritzako kideak.

Horrez gain, Olazarmendiko kideak zaldibartarren jarreragaz oso eskertuta daudela adierazi dute. “San Andres jaietako txupineroak izateko aukera eman ziguten, eta hori plus bat izan zen guretzat”, esan du Garciak. Etxeko txikieneztat “esperientzia izugarria” izan zela adierazi du.

Txikigym, Durangon

Bestalde, zapatuan, Uztai taldeak urteroko Txikigym gimnasia erakustaldia egingo du, 11:00etan, Landako kiroldegian.

Azken urteetan egin ohi duten moduan, erakustaldia ekintza solidario batez lotuko dute. Aurtengoan, erakustaldian batutako dirua Saharara bideratuko dutela jakitera eman dute antolatzaileek, Pulmón de Gaia elkarteak Pandemonium rally solidarioan parte hartu dezan.

Landako kiroldegian jarritako postu batean Baquek emandako kafea eta Uztai taldeko kideek egindako bizkotxo zatiak salduko dituzte dirua lortzeko.

Uztai taldeak antolatzen duen erakustaldiari dagokionez, herriko taldekoek gain, Bizkaiko hainbat herritako benjamin aurreko gimnastek ere parte hartuko dute.

Txapelketako jardunaldirik onena, finalistak erabakitzeko

PILOTA • J.D

Zubiriak lau t'erdian eta Alberdi-Aranguren bikoteak binaka, Olazar pilota txapelketako finala jokatuko dute. Hiru pilotari gipuzkoarrek txapelketako jardunaldirik ikusgarrienean lortu zituzten finalerako txartelak. Zubiriak 22-20 menderatu zuen Lerena. Mar-

kagailua iraultzea lortu zuen 11-17 atzetik joan ostean. Alberdik eta Aranguren 22-17 irabazi zuten Labakaren eta Arratibelen kontra azken txanpara arte oso parekatua izan zen partiduan.

Datorren eguenean ez da partidurik izango. Finalak abenduaren 31n jokatuko dituzte.

Markel Aranzabal Euskal Herriko azpitxapeldun, saskibaloian

Junior mailako Bizkaiko selekzioko partaidea izan da

SASKIBALOA • J.D

Euskal Herriko Saskibaloitza Txapelketan —junior mailan— azpitxapeldun geratu da Bizkaiko selekzioa, eta talde horretako partaidea izan da Markel Aranzabal Tabirako-Baqué taldeko jokalaria gaztea. Finalerdietan Araba kan-

poratuta, Nafarroaren kontra finala jokatu eta alde txikiagaz galdu zuten: 75-71.

Emakumeen Bizkaiko selekzioak ez zuen hain urrun heltzerik lortu. Talde horretako partaidea izan zen Tabirakoko beste jokalaria bat: Maiane Aizpurua.

Adituaren txokoa

Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak



Agur, 2017

2017a amaitzeaz dagoen honetan, aipatzekoa benetan Euskal Herriko mendi korrikalarietako egintza denboraldia. Otsail inguruan hasten dira mendiko lasterketak, bai Euskal Herrian eta baita munduko beste txoko-bazter askotan ere, baina lasterketarik garrantzitsuenak udaberri-beranduan hasten dira.

Esaterako, Zegama-Aizkorri maratoiarekin hasten da Munduko Kopako benetako lehia, maiatz bukaeran. Datorren urtean, gainera, Golden Trail Series-ean ere sartu dute, Salomonek antolatutako zirkuitu berria; neurri handi batean, bertan sortzen den giroa aparta delako. Kilian Jorneten berbak gogoratzea baino ez dago: “Zegama is Zegama”. Eta aurten ere magikoa izan da, jakina. Euskal korrikalariontzat bai, behintzat. Nesketan, Maite Maiorak hegan egin eta probako errekorra hautsiz bere biziko txapelik preziatuena lortu du, eta mutilan Aritz Egea laugarren postuan sailkatu da euskaldunen artean inoizko denborarik onena eginda. Baina beste hainbat euskaldun ere punta-puntan ibili dira: Maria Zorroza, Laura Sola, Julen Larruzea eta Aritz Kortabarria, esaterako.

Baina denboraldia oso luzea da eta urri bitartean bada non gozatu eta non nabarmendu. 2017an Maiora eta Egea nabarmendu dira, argi eta garbi. Mendarorak, Maitek, munduko kopako Extrem modalitatea eta konbinatua irabazi ditu, eta urretxuarrak, Aritzek, Europako txapelketa Zeanurin, Olympus Marathon Grezian eta The Rut Montanan, besteak beste.

2018a ate-joka dugu eta dagoeneko baditugu buruan hainbat lasterketa eta xede. Ia urte berria aurtengoa bezain eman korra den. Seguru baietz!

urtxintxa
jostailu denda

Zuengandik gertu
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Urrike
liburudenda

Kalebarria z/g - DURANGO
Tel.: 946 201 893
www.urrike.es

anboto.org
MUGIKORREAN

Albisteak eta agenda,
bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena:
zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez,
erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

DESKARGATU DOAN!



Anbotoren lagun
eginez irabaz ezazu
Eroski Bidaiak
oparitutako bidaiak



Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

 Anboto Komunikabideak  @anboto  @anbotokomunikabideak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria

E-posta

Kontu korrontea

NAN zenbakia

Telefonoa

ANBOTO - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA, helbidera bidali

Zorion Agurrak

zorionak@anboto.org · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



Abenduaren 12an Kimerako **Zigorrek** 33 urte bete ebazan. Zorionak eta zaren modukoa izaten jarraitu. Mosu eta aupada bat danon partez.



Zorionak, **Luar!** Zure arreba Nahikariren partez. Belarri tirekada handi bat, ondo pasau.



Zorionak, printzesa, zure bederatzigarren urtebetzean. Jarraitu beti bezala saltsera eta sinpatika izaten.



Familiaren eta zure lagunena partez urtebetetze egun on bat pasa dezazula. Ez zaitetz cava eta pasteletaz ahaztu.



Zorionak, aittite **Juan Luis**. Besarkada handi bat danon partez!



Bi ziklogenetiko hauek urteak betetzen dabez, **Telmok** abenduaren 16an 4 urte, eta **Martinek** 6 urte abenduaren 21ean. Musu handi handi bat familiaren partez.



Zorionak, **Aiala** eta **Josu!** Egun on bat igaro familia eta lagunekin batera! Jarraitu maitagarriak izaten! Muxu handi bat Ane eta amatxoren partez!

Botikak

BARIKUA, 15 - 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 16 - 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdia plaza 8 - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-13:30
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
BAZAN DIAZ Urribarri 5 - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO
BARTOLOME Gabiola 2 - BERRIZ
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15 - ABADIÑO
09:00-14:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8, ABADIÑO
DOMEKA, 17 - 09:00-09:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 18 - 09:00-09:00
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8, ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 19 - 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8, ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 20 - 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Urribarri 5 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8, ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUENA, 21 - 09:00-09:00
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8, ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA



MIREN RODRIGUEZ

Azukrea: gozoa jarri da eztabaida

Azukreak eztabaida bizi-bizia eragiten du. Batzuek pozoia pare jartzen dute, eta beste batzuek diote kalterik ez duela egiten eta ezinbestekoa dela garunarentzat eta giharrentzat. Zein ote dabil zuzen? Zer-nolako jarrera hartu behar dugu azukre kontsumoaren aurrean? Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) berriki adierazi du, berriz ere, zer iritzi duen azukre kontsumoaren inguruan. Gauza bera egin zuen 2003. urtean, honako dokumentu honen bidez: "Dieta, nutrizioa eta gaixotasun kronikoen prebentzioa". Txosten horretan esaten zuenez, egunaren buruan hartzen genduen energia guztiaren %10 izan behar zuen, gehienez, azukreek emana. Ehuneko hori ezartzen zuen muga gisa zenbait gaitzi aurrea hartzeko: txantxarra, gizentasuna eta gehiegizko pisuarekin zerikusia duten gaixotasunak (2 motako diabetesa, bihotz-hodietako gaixotasunak eta minbizi mota batzuk ere bai). 2015. urtean egin duen adierazpenean, berretsi egin du gomendio hori, eta ohar hauxe erantsi dio, gainera: egokiena litzateke "azukre libreetatik" ez hartzea kalorien %5 baino gehiago. Komeni denetik urrutit, Espainiako Estatuan 2.000 eta 2.500 kilokaloria artean hartzen ditu jendeak egunero, eta azukre gramo batek 4 kilokaloria ematen ditu; hori jakinda, ondoriozta daiteke OMEren gomendioa dela egunean ez hartzea 60 gramo azukre baino gehiago, eta onena litzatekeela ez hartzea 30 gramo baino gehiago. Espainiako Estatuan, ordea, herritarren joerak nahiko urrutit dabilta gomendio horietatik. Batez beste, egunean 112 gramo azukre hartzen dute. Gizentasunari aurrea hartzeko eta hori tratatzeko moduei buruz argitaratu den azken adostasun dokumentuak dioenez, gure energiaren %16 eta %36 artean dator azukreetatik.

Anbotoren lagunak

Unamunzaga-Etxebarria hertz klinikak emandako hertz eskuila elektrikoa zozkatuko dugu Anbotoren lagunaren artean. Zorte on!

AURREKO ASTEKO ZOZKETAREN IRABAZLEA EGURENEK emandako arroza egiteko lapikoa

ERLANTZ ZALDUNBIDE LEGARRA

ZORIONAK!

clínica dental **hertz** klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

Anboto Komunikabideak

@anboto

@anbotokomunikabideak

Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org

“Lehenengo guk geuk sinetsi behar dugu gure lanak duen balioan, eta hori transmititzen ikasi”

Saskigintzan jardun duen familian sortu da Bea Unzueta. Hirugarren belaunaldia da berea eta, etorkizunean, baten batek bere testigua hartuko duelakoan dago.

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Beti ezagutu du saskigintza etxean Bea Unzuetak. Juan Unzueta aitaren testigua hartu zuen eta, gaur egun, Bizkaian bera da galtzear den ofizio honi eusten dion saskigile bakarra. Otzarak egitea baino gehiago da saskigintza azaldu duenez.

Betidanik bizi izan duzu saskigintza etxean. Noiztik duzu ofizioa?

Bai, betidanik ikusi dut aita etxean lanean. Berak ere aitagaz jarduten zuen saskigintzan. Aititak Pilas-tran ikasi zuen ofizioa, eta, gerora, tailerra zabaldu zuen Durangon eraikitako etxean. Familia osoa Garaitik etorri zen hona bizitzera. Sasoi batean industria ere bihurtu zen. Aititak seme-alaba guztiakin jarduten zuen saskigintzan. Andrek ere laguntzen zuten lanaren aldi batzuetan. Adibidez, otzarak amaitzeko azken josketan. Gizonak lan gogorrenaren kargu egiten ziren: makilatik materiala ateratzea, labealdiak egitea...

Zuen aitak hartu zuen testigua.

Bai. Benetan gustatzen zitzaion sas-

eta aitak. Lan asko egiten zen sasoi batean, batez ere, meatzetarako. Otzara oso gogorrek egiten ziren.

Aita saskigile entzutetsua izan zen. Omenaldia egin zioten Euskal Dendan. Nola bizi zenuen?

Aita eta Jose Ramon Salmanton omendu zituzten. Hunkigarria izan zen. Ikustekoa zen aita lanean, oso bizia zen. Aintzatetsia izan da bere lana, eta jardunean ibilitako urteetan lan ikusgarriak egin zituen. Berak egin zuen Gasteizko Gargantua jarrita dagoen otzara. Oso

aditua zen ofizioan. Gaztaina lantzen zuen berak. Tradizionalki okindegietan, baserrietan, kontserba industrian, eraikuntzan, meatzetan, itsasontzietarako... erabili izan dira otzarak. Bakoitza erabilera zehatz baterako zen.

Landa eremuetan, altzariak ere egiten zituzten: aulkiak, sehaskak... Baziren baita kapotadun aulkiak ere, hondartzan, eguzkitik edo haizetik babesteko.

Hirugarren belaunaldia zara zu. Ofizio gogorra da?

Dedikazio handia eskatzen du saskigintzak. Gustatu egin behar zai-

zu, jakin-mina sortu behar dizu. Hala ere, sortzen eta esperimentatzen ere ematen ditut orduak.

Gaztaina lantzen duzu zeuk ere?

Bai. Orduango erabilerarik ez dute oraingo halako tamaina handiko otzarak, eta, zorionez, ez da horren material mardula behar. Neurri batean, bestelako pieza batzuekin lan egiten delako jarraitu dut saskigintzan: txikiagoak, beste erabilera bat dutenak... Dena den, saskigintzan edozein landare-zuntz erabili daiteke. Toki bakoitzean, inguru horretan sortutako materialekin egiten da lan. Gurean gaztainagaz, batez ere. Hala ere, aulkigintzarako bestelako materialak erabiltzen ditut: lezka, soka formadun palmondo nanoa... Saretagaz lotutako guztia ere eskuz egiten dut.

Otzarak egitea baino gehiago da, beraz, saskigintza?

Bai. Bionboak, perretxikoak batzeko saskiak... edo berriagoak diren ordenagailu eramangarrientzako zorroak, zapatentzako takoiak, poltsa hiritarragoa... gaur egungo beharretara egokitua. Interiorismoan ere erabili daiteke saskigintza: bereizleak egiteko, erro-tuluetarako... Zurak bere mugak ditu, baina, ikasiaz, gero eta aukera gehiago daudela ikusten duzu. Teknika mailak era badu eragina.

Galtzear dagoen ofizioa da zurea?

Bai. Gipuzkoan pare bat tailer daude, eta Bizkaian neu geratzen naiz.

Hartuko du inork zure testigua?

Baietz uste dut! Ez da erraza halako zerbaitetan hutsetik hastea, baina uste dut egon daitezkeela formulak jendea lan honetan hasteko. Saskigintza askotariko foroetara eramateak ere lagundu dezake. Sormenezko enpresatzat hartu gaituzte orain artisauak, eta denon eskura jarri gura dituzte dauden baliabideak. Baliteke testuinguru horretan sinergia bat sortzea, txip aldaketa bat ematea.

Ez da baloratzen artisautza, oro har?

Baliteke. Baina lehenengo guk geuk sinetsi behar dugu gure lanak duen balioan, eta hori transmititzen ikasi. Denok probatu beharko genuke gure eskuekin zerbait egiten, orduan baloratzen da egindakoa. Askotariko azokak daude, artisauaren lana ezagutarazten eta produktzioa ateratzen laguntzen dutenak.

Lauhortza

Sergio Murillo Corzo
Ekonomialaria



Zori(on) partekatua

Durangaldeko biztanleen artean %8,6k ez dauka benetako ongizaterik eta langabezia tasa %10,02koa da, iturri ofizialen arabera. Datuak datu, ingurura begiratu eta laster konturatzen gara, zoritxarrez, gurean badagoana zailtasunik daukan pertsonarik. Zorionez, aldiz, beharrak beharrean jarri izan gaitu Herri lez.

Jardun horren adierazle dira, aspalditik, gizartetik lehenengo, eta herri-erakundeetatik geroago, martxan jarri izan doguzan hainbat tresna eta baliabide. Kate horren kate-begiak dira, gaur eguneraino bizirik iraun daben kofradiak, edota pausoz-pauso eraiki dogun gizarte kohesiorako sarea; gizarte, hezkuntza eta osasun sistemetan hezurmitua. Batzuek eta besteek, gure zoria edozein dala ere, bizibide duina izan dagigun babes emon, egoera hori gaituzte eta gizarteko kide aktibo bihurtu gaituzan heldulekuak emotea dabe helburu. Izan ere, euskal gizartean ez da ahuldu gure herrikide bakoitzaren patua, gure patua danaren kontzientzia.

Kontzientzia hori, beharri emon deusagun esangura sakonean ere isladatzen da. Lanaren bidez bakoitzaren gaitasunak sortze, eraldatze prozesu baten jartzen doguz; horren emoitza, bakoitzak gizarteari egiten deutson ekarpen bihurtuz. Prozesu horretan parte hartzeak, besteekaz -gure gizarteagaz- lotzen gaitu. Horretarako aukerak areagotu behar doguz, giza-gaitasunak eta ekonomia-jarduerak lotuz, lan-aukerak sortuz. Horrela ulertuta, horrek ere, alkartasuna sortzen dau.

Azken finean, Herri lez aurrera egitea, gure zori(on) partekatzea da.

Bea Unzueta
Goienetxe
Saskigilea
Durango | 1964

kigintza. Askotan kontatzen zuen Loiolako baserri batean aritu zenekoa: soldaduska egin zuen han, eta behin, menditik bueltan, baserri batean materiala ikusi zuen, uretan utzita. Baserrian gordeta zuten urtebeterako materiala hilabeteen xahutu zuten hango baserrikoek



ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua Industriaduna, 71C · Tel.: 946 824 550

GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

www.alkimax.net



ERRADIADOREAK



INFRAGORRIAK



AIRE KAINOIA



FAROLAK



HEZETASUN KENGAILUAK



MOTOBONBAK



BONBA URPERAGARRIAK